

BORTZIRIETAKO ZAINZA ANTOLAKETA

ZAINZA LANEN DIAGNOSTIKOA ETA
EKINTZARAKO PROPOSAMENA



Bortzirietako
Berdintasun Zerbitzua

Aurkibidea

1. Kokapena	4
2. Helburuak.....	6
3. Prozedura eta metodologia.....	7
4. Zaintza lanak: Zertaz ari gara?.....	8
5. Zaintza krisia	9
6. Zaintza: etika atzerakoia baldintzatua.....	11
7. Zaintzak landa eremuan.....	12
8. Bortzirietako biztanleriaren joera datuetan.....	15
8.1. Biztanleria	15
8.2. Indize demografikoak: zaintza premia eta aukeren adierazle	16
Biztanleriaren mendekotasun adierazleak.....	16
Biztanleriaren jatorri aniztasuna.....	21
Euskararen erabilera	22
Menpekotasun aitortua duen Bortzirietako biztanleria	23
Menpekotasun aitortua duten Bortzirietako Gizarte Zerbitzuetako erabiltzaileak.....	25
8.3. Bortzirietako zerbitzuak eta zaintza egitasmoak	27
Etxez-etxeko zerbitzua	28
Prestazio ekonomikoak	29
Jubilatuak elkartea	30
Jubiloteka zerbitzua	31
Elkarrizketak	31
Adineko pertsonen egoitzak	32
Afan Elkartea	33
2018-2019 Bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko IV itun mankomunatua	33

8.4.	Desgaitasunari arreta: Uxane zentroa eta Maddi egoitza	33
8.5	Adin txikikoei begirako egitasmoak	34
	Zerbitzu publikoak	34
	Haur txokoak	36
	Udaleku irekiak.....	36
	Guraso elkarteak	37
9.	<i>Analisi kualitatiboa</i>	39
9.1	Zaintzaile afektiboak	40
	Eguneroko gatazkatsua	40
	Laguntza publiko-komunitarioa.....	40
	Eragin fisiko eta psikologikoak	42
	Aurrera begirako proposamenak	42
9.2	Amatasunak eta beste amatasunak.....	42
	Erditze ostea eta edoskitzea, epaiak zeharkatuta	44
	Zerbitzu publiko eza.....	44
	Enpleguan zigorra	45
	Gizonen erantzunkidetasun eza.....	45
	Isolamendua eta saretze berriak	46
	Aurrera begirako proposamenak	46
9.3	Zaintzaile profesionalak	47
	Etxez etxeko laguntza zerbitzua.....	48
	Zahar egoitzetako langileak.....	50
	Etxeko langileak	54
9.4	Adineko pertsonak	59
	Etxean eta senideekin	60
	Zerbitzuen erabilera	60
	Bakardadearen areagotzea eta ekimen komunitarioen beherakada	61
10.	<i>ETORKIZUNERAKO ERRONKAK</i>	62
10.1	Zaintzak erdigunean kokatzeko egiturak sortu.....	62
10.2	Arreta eredua eta zerbitzuak hobetu.....	62

10.3	Zaintzaileen bizi eta lan baldintzak hobetu	63
10.4	Saretze komunitarioa	64
11.	<i>ERANSKINAK</i>	66
11.1	Eranskina 1: Marko normatiboa	66

1. Kokapena

Gaur egun zaintza lanak antolatzeko dugun moduak ez ditu gizartean dauden beharrak asetzen. Egun, sistemak ez du gaitasunik biztanleriaren geruza askoren ongizatea bermatzeko eta datozen urteetan egoerak okerrera egingo duela iragartzen dute datuek, zaintzak beste era batera antolatzen ez baditugu behintzat. Piramide demografikoaren aldaketek, menpekotasun indizearen gorakadak, emakumeen lan merkaturatzeak, politika neoliberalen garapenak eta askotariko familia ereduen hedapenak (besteak beste, familia geroz eta txikiagoen eratzea) zaintzak antolatzeko moduetan inpaktu handia izan dute eta, ondorioz, zaintza krisiaz mintzo gara talde zein teorialari feministak.

Argi denez, zaintza lanak eskaintzeko geroz eta zailtasun handiagoak daude eta beharrak nabarmenagoak dira eta izango dira. Administrazio publikotik baliabide edota prestazio gehiago sortu diren arren, logika asistentzialistatik eta eredu psikosozialetik egiten dira eta ez dira dituzte pertsonak dituzten beharrak eta desirak asetzen. Are, zaintza zerbitzu asko merkatuaren eta irabaziak metatzeko logikan jarri dira. Zaintza lanak merkantilizatzen badira, irabaziak izateko langileen egoeraren zein zaintza premia handiak dituzten pertsona edota familien gain gelditzen dira. Lehenengoen kasuan errenta oso baxuak eta lan baldintza oso eskasak ezartzen dira eta bigarrenen kasuan, ordaindu ezin diren tasak ezartzen dira.

Nafarroako egungo zaintza erregimena bidegabekoa da, eta zaintza etika atzerakoia bultzatzen du. Desfamiliarizazio prozesua bizitzen ari garen arren, oraindik orain familiak eta horien barruan emakumeak dira zaintza lanetan arduradun nagusi. Etxean eta harreman afektibo zein familiarren baitan daudenak dira lehenesten direnak, zaintza onenak, desio ditugunak. Familia batzuk (emakume batzuk) zaintza lanen karga pixka bat kentzeko aukera izan dute, betiere baliabide ekonomiko eta sozial nahikoak badituzte. Hala ere, hori ez da gertatu erakunde publikoek zaintza eskubidearen ardura bere gain hartu dutelako, baizik eta etxeko zerbitzu prekarizatu eta irregularrak kontratatatu direlako familian. Zerbitzu publikoak gutxitzen eta pribatizatzen ari diren bitartean, eta gizonek zaintzeko ardura hartzen ez duten bitartean, etxeko langileen kontratazioa da nagusitu den desfamiliarizazio estrategia orokorra.

Horregatik zaintza lanak demokratizazio prozesuan jarri behar dira. Horretarako, zaintza lanak aitortu behar dira, eta lanen izaera, dimentsioak eta tokian toki betetzen dituzten funtzioak ikustarazi behar dira. Gizartean, orohar, eta, zehazki, ekonomian egiten duten ekarpena kontuan hartu behar da. Ondorioz, bizitza sozialeko eremu guztietan betetzen duen funtzioa onartu behar da. Garrantzitsua da ekarpena egiten duten horiek lehen lerrora ekartzea; hots, emakumeak eta horien barnean klase baxuko emakumeak eta migratutakoak.

Norabide horretan, ezinbestekoa da jendartean indarrean dauden zaintzari buruzko diskurtsoak aldatzeko sentsibilizazio lana egitea, zaintza lanen gaineko ezagutza areagotu eta horiek neurtzea, (adibidez denboraren erabilerari buruzko inkestekin) eta iruditeri berriak osatzea. Horretarako gaur egungo egoeraz jakitun izan behar dugu, egungo ereduaren bidegabetasunaren kontzientzia hedatu egin behar da eta zaintza lanak kolektibizatzearen beharraz jabetu eta baliabideak eskaini behar dira.

Nafarroako Foru Erkidegoan Zaintzen Aldeko Foru Ituna (2022-2026) indarraldian izanik, berdintasun politikak Nafarroako biztanleriaren uneko gizarte eta kultura errealitatera egokitzeke apustua egin da. Hala adierazten da Itunean: “Zainketen krisia” identifikatu dugu jada, eta kontziliazio, erantzunkidetasun eta gisako kontzeptuetatik harago joan beharra dago, agerikoa baita egungo jendarteetan arazoak daudela bizitzen iraunkortasuna bermatzeko zainketa lanen banaketan eta antolaketan”. Ituneko helburuak erdiesteko, urteko lan programa prestatu eta onetsiko direla ebazten du itunak. Bost esku hartze ardatz proposatu dira programan eta horietan kokatuko dira erakunde sinatzaileen jarduerak urtez-urte:

EHA1 Sentsibilizazioa zainketen arloan, balioak aldatzeko eta orokortzeko.

EHA2 Prestakuntza/Gaikuntza

EHA3 Langileei zuzendutako barne neurriak, zainketen banaketa eta elkarrekikotasunerako, erakundeetan eta entitate publiko eta pribatuetan.

EHA4 Politika publikoak edo herritarrentzako ekintzak, zainketen banaketa eta elkarrekikotasuna lortzeko erakundeetan eta entitate publiko eta pribatuetan.

EHAS Zainketak antolatu eta banatzeko neurriak eta programak, elkarrekikotasun printzipioan oinarrituta, entitate sozialek bultzatu, antolatu eta koordinatuta herritar guztientzat.

Tokiko politikak eremu esanguratsua dira politika feministak sustatzeko eta bertatik sustatzen diren neurri eta jarduerak herritarren bizimoduan eragin zuzena dute. Bortzirietako Berdintasun Zerbitzutik sustatu zen prozesuaren ostean, 2023. Urtean *Bortzirietako Berdintasun Plana* onartu zen. 2024. Urteari begira eskualdean dauden zaintza premien inguruko diagnostiko bat egitea aurreikusten da planean. Hain zuzen ere planaren 3. 1. 2. Puntuan adierazten da: “Eskualdeko zaintza beharren diagnostikoa egitea, umeen zaintzari eta menpekoen zaintzari lotua”. Premia horri erantzutera dator ondorengo lerroetan garatu dugun proposamena.

2. Helburuak

- Zaintza lanak demokratizatzeko, Bortzirietako zaintza lanen antolaketaren inguruko diagnostikoa egitea parte hartze prozesu baten bidez
- Gaur egungo zaintza lanen antolaketaren gaineko sentsibilizazioa eta kontzientziazioa bultzatzea orotariko ordezkari, eragile eta herritarren artean.
- Zaintza lanen eraldaketarako prozesuak abiatzeko artikulazio publiko komunitariorako egiturak sortzea.

3. Prozedura eta metodologia

PROZESUAREN DISEINUA

Hasieran, udal ordezkari (berdintasun zinegotziak), teknikariak (gizarte langilea eta berdintasun teknikaria) eta mugimendu feministako kideekin talde motorra osatu zen.- Batetik, aurkeztutako prozesua eskualdeko errealitatera hobeto egokitzeko, eta bestetik, dokumentazioa eta landa lana zehazteko. Bertatik ere identifikatu ziren parte hartze prozesuan gako izan diren pertsonak, eta haiekin harremanetan jartzeko modua.

Osotara hiru bilera egin dira.

DOKUMENTAZIOAREN ERREBISIOA

Gizarte zerbitzuaren, Berdintasunaren eta euskara mankomunitateak Bortzirietan sortu dituen dokumentazioa ikertu da. Horretarako aztertu dire, ikerketak, memoriak eta bileretako aktak, baita Bortzirietan dauden datu soziodemografikoak aztertu ere Nastatek jasotzen dituen datuetan oinarrituta.

Era berean, udaletako zein eskualdeko egiturarekin eta funtzionamenduarekin lotutako dokumentazioa aztertu da.

GALDETEGIA

Bortzirietako haurren zaintzarako eta familien kontziliaziorako eskualdean dauden zerbitzu, egitasmo eta hutsuneak identifikatzeko, udal guztietan eta mankomunitateetan galdetegi bat pasa da. 10 erantzun jaso dira, eta horietan haurren zaintza eta garapenerako dauden baliabideen mapaketa egin da. Falta zen informazioa emailaz edo telefonoz osatu da.

Bestalde, beste 18 galdetegi jaso dira desgaitasuna, haur eskolak, guraso elkartean, jubilatuen elkarteak, erizaina eta elkarrizan taldearen informazioa sistematizatzeko.

LANDA LANA: TALDE ELKARRIZKETAK

Sakoneko 5 talde elkarrizketa egin dira eskualdean zaintzaile diren edo zaintza premiak dituzten profil orotarikoei:

- Zaintzaile afektiboak: Afan elkarteak sustatzen duen senitartekoen taldearekin elkarrizketa egin da.
- Etxeko langileak: Eskualdean interna gisa edo ordukako lana egiten duten emakumeekin egin da. Bertakoak zein atzeritik etorritakoekin egoteko aukera egon da.
- Adineko pertsonak: Jubilotekan parte hartzen duten adinekoekin izan da elkarrizketa.
- Zaintzaile profesionalak: Mankomunitateko etxez etxeko laguntza zerbitzuko langileekin, zein eskualdean dauden zahar etxeetako langileekin elkarrizketa egin da.
- Adin txikiko haurrak haien zaintzapean dituzten herritarrak: Amak eta amonak diren herritarrekin egin da elkarrizketa.

Horretan guztian oinarrituta, diagnostikoa osatu da. Hurrengo faserako herriko elkarte zein udal ordezkariekin lan saioak egingo dira, diagnostikoaren emaitzak osatu eta aurrera begirako proposamenak jasotzeko. Era berean, zaintzaren gaineko trebakuntza egingo da, oinarri gisa, aurrerantzean konpromiso zehatzak hartuko direla sustatzeko.

4. Zaintza lanak: Zertaz ari gara?

Zaintzak askotariko ikuspegiek zeharkatzen dituzte, eta gai konplexu baten aurrean gaudela badakigu.. Dira lanak, denborak eta esfortzuak bizitzak bizitza izateko. Dira prozesu zehatzak, zuzenak eta, era berean, prozesu ikusezinak, zeharkakoak.

Subjektibitate handiko lanak dira, emozio, sentipen, afektu, afektu eza zein maitasun edo maitasun ezarekin lotzen direnak. Ez dira ekintza bakarra; hots, askotarikoak dira. Uztartu daitezke eta horrek zama ere areagotzea ekar dezake. Etengabeko ardura eta disponibilitatea eskatzen dute askotan, zerbaiti arretaz egotea, begirale gisa egotea. Ondorioz, esan dezakegu, ez dela lan zehatz bat soilik, lan bat egiteko denbora potentziala ere barne biltzen da.

Bizitza mantentzen dute eta gainera ongizatea eskaintzen digute. Horiek horrela, zaintzak ongizaterako baldintza materialak ziurtatzen dituzte eta gorputz zein emozioen arreta bermatzen dute. Perez de Orocoren (2014) definizio honekin bat egiten dugu: “pertsonen ongizate fisiko eta emozionala egunero eta belaunaldiz belaunaldi birsortzen duten jarduerak dira zaintza lanak”. Gure existentziaren oinarri dira, eta zaurgarritasunari aurre egiteko era bakarra elkar zainduz da. Horien bidez harremanean jartzen gaituzte gu denok, eta jendartea eraikitzen da; hots, komunitatea eraiki. Are gehiago, planeta honetako pertsona eta izaki bizidun gehienek aurrera egitea ahalbidetuko duten baldintza politiko, sozial, material eta emozionalak eskaintzeko gure gaitasun indibidual eta kolektiboa direla ere uste dugu (The Care Collective, 2021).

Halabaina, ezin ditugu zaintzak esentzializatu eta erromantizatu. Bi alde dituzte: batak eraldaketa zein askatasunarekin lotu gaitzeke; besteak, zapalkuntza eta diskriminazioarekin. Gatazka eremua dira ez direnean baldintza justoetan egiten, ez direnean eskubideak errespetatzen, beharrak kontuan hartzen edo egin nahi ez direnean. Abusu asko gertatzen dira, eta tranpa horiek guztiak azaleratzea, zaintza lanak demokratizazio bidean jartzeko ezinbestekoa da.

5. Zaintza krisia

Gaur egun zaintza lanak antolatzeko dugun moduak ez ditu gizartean dauden beharrak asetzen eta datozen urteetan egoerak okerrera egingo duela iragartzen dute datuek, zaintzak beste era batera antolatzen ez baditugu behintzat.

Aldaketa soziodemografikoak, mendekotasun indizearen gorakadak, emakumeen lan merkaturatzea areagotzeak zein bizi espektatiben aldaketak, politika neoliberalen

garapenak, eta sistema publikoa higitzeak, eta askotariko familia ereduen hedapenak, zaintzak antolatzeke moduetan eragin handia izan dute, eta, ondorioz, zaintza krisiaz mintzo gara.

“Zaintzaren kate globala *Lehen katebegia iparraldeko emakumeek osatzen dute, ez dutelako nahi edo ezin dutelako inguruko zaintza lanez arduratu. Horiek lan merkatura ateratzen direnean, beste emakume batzuek uztan dituzte zaintza lanak. Horra hor bigarren katebegia, hegoaldeko migratu duen emakumea. Horiek, era berean, bere jatorrizko herrialdean bere inguruko beste emakumeengan laga dituzte ordurarte bere kargu zeuden lanak. Azken horiek izango lirateke hirugarren katebegia”.*

Zaintza lanen krisiak areagotu egin ditu Europako zeinbait herrialdeetan ditugun premiak, eta horrek bultzatuta, eskari handia dago, hegoalde globaleko herrialdeetako emakumeena, **Emakume etorkin eta arrazializatuak** dira nagusi zaintza lanetan, bai administrazio publikoak bultzatutako zerbitzuetan (geroz eta gehiago), bai merkatuaren logikan mugitzen diren bestelakoetan (irabazi asmoko enpresetan), bai etxeko langileen kasuan ere. Horregatik, ikuspegi transnazionalak zeharkatu behar dute zaintza lanen antolaketaz egiten ditugun hausnarketak.

6. Zaintza: etika atzerakoiak baldintzatua

Zaintza erregimen bidegabe honetan, askotariko fenomenoak elkarlotzen dira: lan prekaritatea, lan merkatuko segmentazioa, pobreziaren feminizazioa, jardun bikoitzak, denbora pobrezia, bizi proiektuen alboratzea, bazterketa soziala eta indarkeria matxista.



7. Zaintzak landa eremuan

Zaintzen lanak, landa eremuan ere beste territorio batzuetan dituen aldagai berdinak ditu: erabat feminizatuak daude, gutxietsiak dira zein aitortzarik gabeak, familiarizatuta daude, eta klaseak zein migrazio estatusak zeharkatzen dituzte. Gainera, zerbitzu publikoen eskasia dago, eta eremu pribatuak pisu handia du.

Hala ere, baditu hainbat berezitasun, aipagarriak zaizkigunak analisia egiterako garaian, eta bereziki, horiek eraldatzeko ikuspegian.

Landako emakumeak, historikoki, besteak beste, euren inguruaren zaintzaile izan dira. Oso gutxirarte, Euskal Herrian, oro har, emakume landatarrak nekazariak izan dira. Industrializazio prozesuarekin, zein bere pentsaeraren hedapenarekin, baserritarren kulturek eraikitako ondare aberatsa eta ugaria bazterreratu egin zen, haien ezagutza sistemak gutxietsi ziren, eta landa eremuko emakumeak zokoratu egin ziren.

Ezin dugu ahaztu sistema patriarkalak emakumeek egindako lanei erabateko balioa kentzen diela, are eta gehiago bizitzaren iraunkortasunaren gainetik kapitalaren metaketa lehenesten den garaian. Horregatik, bizitzaren iraunkortasunari, zaintzari eta etxeetako elikaduraren erantzunkizuna hartzen dutenen bizitzak ez daude inondik inora erdigunean.

Baserriek emakumeei esker funtzionatu dutela aipatzen dute, langile nekaezinaren ideiarri lotuta. Etxea zaindu dute, etxean bizi direnak, ingurua zaindu dute, eta, gainera, baserriko lan banatuak ere eraman dituzte aurrera. Horiek gainera ikusezinak izan dira, gizonen lanean jarri da, lan produktiboan alegia, begia. Ekoizpen zuzenarekin lotutakoak hartu du landa eremuan ere garrantzia eta emakumeen funtzioak behar beste aitortzarik ez du jaso. Horrek, zaintza lanen zein emakumeei egokitutako lanen gutxiespena eta zokoratzea ekarri du.

Emakumeena izan da hortaz familia-unitateari eusteko ardura nagusia, gaur egun hegemonikoa den familia nuklearra gainditzen duten egiturak. Haiek izan dira ezkondu eta senarraren gurasoak zaintzera deituak izan direnak (asko izan dira haien herria utzi eta gizonaren familiako baserrira joan direnak bizitzera), zaindu dituztenak ezkondu gabe gelditu diren anaiak, osabak edo semeak. Haiek dira nagusiki haien bilobak zaintzen

dituztenak, eta herrian edo kanpoan bere gurasoen zaintzaz arduratzen direnak. Mendekotasuna duten pertsonen zaintza eta ongizatea bermatu da haien desjabetzearen bidez.

Eurena da ardura, tradizioz egokitu zaizkielako, eta baliabide publikoak oso eskasak izateak haien bizkar erortzen utzi direlako. Izan ere, orokorrean gizarte zerbitzuak eskasak dira, baina landa eremura ez dira apenas iristen, eta ez dira egokitzen dauden berezitasunetara. Hornidura askoz txikiagoa dago landa eremuan, irisgarritasuna ez da erraz bermatzen eta hutsune horiek emakumeek bete behar dituzte, haien eguneroko bizi eta lan baldintzetan zigorak eraginez, eta emakumeak zaurgarriago bilakatzuz.

Lanaren banaketa patriarkalak ekarritako zama eta aitortza faltari, azken urteetako faktore demografikoak gehitu behar zaizkio. Batetik aipatu nahi dugu, azken urteotan gazteek landa eremua uzteko apustua egin dutela, eta ahal dutenek utzi dutela baserria eta baserriko bizimodua, eta migrazio horrek biztanleria piramidearen gailurrean emakume gehiago agertarazi dituela. Bestetik, eta horrekin lotuta, landa eremuan biztanleriaren zahartzea ekarri du, eta horrenbestez mendekotasun egoeran dauden pertsonen gorakada ekarri du, zaintzaz arduratzen diren emakumeen lan karga handituz.

Horiek horrela, landa eremuan zaintza lanen pisua handitzen ari dela ondoriozta dezakegu, eta horren ondorioz beste emakume batzuen kontrataziora jo da, nahiz eta orain dela urte batzuekin konparatuz zahar egoitzak, eguneko zentroak edo bestelako zerbitzuak aukera errealagoa izan. Ez beti, baina gehienetan migratu duten emakumeak zaintza lan profesionaletan daude, eta horrek dituen berezitasunak aztertzea garrantzitsua dela deritzogu.

Emakumeek landa eremuan betetzen duten funtzio sozial horren barruan, ezin dugu ahaztu emakumeek bizitza soziala suspertzeko, hizkuntza biziberritzeko edo tradizioei eusteko eta horiek eguneratzeko duten rola, edo tradizio ugari kontserbatzeaz eta transmititzeaz arduratu ohi direla. Izan ere, zaintzak badu harreman zuzena ere herriko ondarearekin, kultura eta hizkuntzarekin. Zapaldua den kultura eta hizkuntzaren transmisioan nahiz zaintzan eragile garrantzitsuak izan dira landa eremuko emakumeak, jasotako bizimoduari eusteko pieza ezinbesteko bilakatu direlarik.

Zaintzari ere komunitateak eratzearen ikuspegitik begiratu behar zaio derrigor. Kapitalismoarentzat ezinbesteko bilakatu da herri txikietan geroz eta jende gutxiago bizitzea eta hori bultzatzea bere interesak zabaltzeko; hots, lurrak ustiatu ahal izateko, eta turismorako erabiltzeko. Horregatik, landa eremuan dago zerbitzu falta, herritarrak beste toki batzuetara mugitzeko, horregatik ez da nekazaritza sustatzen, beste lan batzuetan jarduteko, eta horregatik dago etxebizitza eskuratzea hain zaila, turismorako erabilera sustatzen delako, ostatu bilakatzeko. Horrek guztiak bizitza eta komunitateak lausotzen ditu, hiriekiko mendekotasuna handitzen du, eta biziraupena arriskuan jarri. Hori ez ezik, kotxe pribatuarekiko mendekotasuna ere indartzen du, zerbitzuak dauden tokietara mugitzeko, heziketa ibilbideak egiteko, edota profesionalki garatzeko. Horregatik, komunitate indartsuak eta iraunkorrak zaintzeko lana ezinbestekoa da, eta landa eremuak horretarako ezinbesteko osagaiak ere baditu.


Hala ere, ezinbestekoa da zaintza hauek gorputzen zaintzatik harago pentsatzea, lurrarekiko harremana eta lotura beste inguru batzuetan baino agerikoagoa delako; hau da, ekomendekotasunaren ideiak landa eremuan beste esanahi bat hartzen du, haien egunerokoa lurrarekiko harremanak zeharkatzen duelako askotan. Bizitza bizigarriaren aldeko apustuak talka zuzena egiten du agroindustriaren hedapenarekin, eta sortzen dituen kalteak kinka larrian jartzen du nekazaritza eta herri askoren biziraupena. Bertako ekoizpena bertako kontsumorako, komunitateen elikadura burujabetza, elkar-zaintza edo auzolana, ahalik eta hondakin gutxien sortzeko kultura, hondakinari ongarri deitzaileak edo naturaren zikloekin bat bizitzeko erritmoak mespretxatuak dira. Kasu askotan ofizialki etxeko gizonen izenean dauden lur pribatu zein herri lurrak emakumeak landu dituzte inongo aitortzarik gabe. Beste batzuetan, baserritik kanpo diru iturri bat bilatzera behartutakoak, herri nukleotan edo hirietan zaintzari loturiko enpleguak egitera bideratu izan dira.


8. Bortzirietako biztanleriaren joera datuetan

Bortzirietako biztanleriaren datu soziodemografikoak eta adierazle nagusiak jaso dira jarraian.

8.1. Biztanleria

BIZTANLERIA SEXUAREN, ADINAREN, ETA UDALERRIAREN ARABERA 2022KO URTARRILAREN 1A BITARTE.





Iturria: Emaginek eginga, Nastatek INEren errolda jarraituaren estatistikako datuetatik abiatuta sorturiko datuetan oinarrituta.

8.2 Indize demografikoak: zaintza premia eta aukeren adierazle

Biztanleriaren mendekotasun adierazleak

Biztanleria piramidearen joerarekin batera aldatzen dira honen mendekotasun adierazleak. Mendekotasun-tasaren inguruko ulerkera ofizialak produktibitate ekonomiko terminoetan ulertzen du mendekotasuna –lan merkatuan aritzeko gai ez den eta gai denaren arteko harremana-; guk, oster, arreta zaintza lanen premiaren adierazgarri izatean jartzen dugu.

0 eta 14 urte bitarteko populazio kopurua eskualdean dauden zaintza premien adierazleetako bat da: izan ere zaintza premia intentsiboak izan ohi dituzte, bereziki, gazteenek. Zaintza lan horiek, batipat emakumeek egin ohi dituzte, zaintzagatiko lan uzte edota eszedentzia eskarien inguruko datuek adierazten duten bezala. Bortzirietan joera ezberdinak antzematen dira. Batetik, biztanleriaren zatirik gazteenen kopurua handitzen joan dela ikusi liteke azken hamarkadan, Arantza, Bera eta Etxalarren kasuan. Ostera, Lesakan kopurua mantentzen dela ikus liteke eta Igantzin, aldiz, jaitsi egin da populazio gazteenaren pisua biztanleria aktiboarekiko.

Gazte mendekotasun indizea, urtea eta udalerriaren arabera. <15 / 15-64 urteko biztanleria. %

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Arantza	22,9	22,6	25,2	25,9	27,0	27,5	26,4	26,6	25,1	25,8
Bera	24,5	25,0	25,8	25,6	26,5	26,1	26,4	25,5	25,1	25,2
Etxalar	26,0	27,0	27,8	29,2	29,5	29,9	28,3	29,0	27,2	27,1
Igantzi	26,6	27,8	28,5	26,6	28,0	28,3	26,5	24,9	23,8	21,6
Lesaka	22,6	23,3	23,5	23,2	23,6	23,5	23,7	23,3	23,1	22,7

Iturria: Emaginek egina, Nastaten datuetan oinarrituta, INEren errolda jarraituaren estatistikako datuetatik abiatuta.

Adinekoen mendekotasun indizea, aldiz, txanponaren beste aldea da, biztanleriaren zatirik helduena, alegia. Zaintza premia intentsiboenak izan ohi dituzte eta mendekotasun egoera gehienak 65 urtetik gorako populazioan daude. Adierazle honek eskualdeko emakumeen bizi kalitatean eragin zuzena du, haiek baitira, gehien bat, helduenen zaintzaz arduratzen direnak.

Joera orokorrari jarraituz –inoiz aurre ikusi gabeko biztanleria piramidea dugu gure herrialdean – populazio helduenaren hazkunde bat gertatzen ari da eta Bortzirietako errealitatean ere badu bere isla. Azken hamarkadan etenik gabeko adineko pertsonen gorakada bat adierazten duten datuek, 2013an 65 urte baino gehiagokoak % 33,1 izatetik,

2022. urtean % 37,6 izatera igaro baitira. Hala ere, udalerrien artean aldaera nabarmenak daude, izan ere, Bera, Etxalar eta Lesakan % 8 eta % artean igo den bitartean, Arantza eta Igantzin zertxobait jaitsi dela adierazten dute datuek.

Biztanleria helduenaren hazkundearen muturreko adierazgarria **gainzahartze-indizea** da, hau da, 75 urte eta gehiago dituzten biztanleak. Kasu horretan zaintza beharreak handiagoak izan ohi dira, eta beraz, tasa hau zaintza lanen premien adierazle zuzenagoa da. Ez dugu datu zehatza eskuratzerik izan, baina zahartze-indizearekin batera eta bizi-itxaropena haztearekin batera, honek ere goranzko joera adierazten du, halaberharrez.

Adinekoen mendekotasun indizea, urtea eta udalerriaren arabera. >65 / 15-64 urteko biztanleria. %

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Arantza	40,1	39,1	38,8	41,0	42,8	41,2	41,3	40,4	36,5	38,3
Bera	26,0	27,6	29,2	29,9	30,1	30,7	31,3	32,0	32,8	35,0
Etxalar	30,4	34,3	36	37,3	38,5	40,7	41	40,9	42,1	40,6
Igantzi	38,8	40,7	40,8	39,5	40,3	41,1	37,8	36,9	36,6	35,9
Lesaka	30,3	31,6	32,4	34,0	35,4	35,7	36,6	37,1	36,8	38,1

Iturria: Emaginek egina, Nastaten datuetan oinarrituta, INEren errolda jarraituaren estatistikako datuetatik abiatuta.

Aurretik azaldu ditugun adierazleen sintesia da mendekotasun-indize orokorra, izan ere, 15 urtetik beheragoko eta 65 urtetik goragoko populazioak gainontzekoarekiko duen pisua adierazten digu; alegia, zaintza premia potentzialak dituzten eta zaintzaile potentzialen arteko harremana. Joera orokorrari jarraituz, Bortzirietan ere mendekotasun tasak goranzko joera nabarmena du, bereziki, eskualdeko udalerri handienetan, hots, Beran 9 puntuko igoera izan du, Etxalarren 10,2koa eta Lesakan 8,2koa. Kontrara, Arantzaren -1,8- eta Igantzin -2,9- jaitsi egin da.


Mendekotasun indize orokorra, urtea eta udalerriaren arabera. <15 eta >64 / 15-64 urteko biztanleria. %

	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022
--	------	------	------	------	------	------	------	------	------	------

Arantza	63,0	61,7	64,0	66,9	69,8	68,7	67,7	67,0	61,6	64,2
Bera	50,6	52,7	55,1	55,5	56,6	56,8	57,8	57,4	57,9	60,2
Etxalar	56,4	61,2	63,8	66,5	68,0	70,6	69,4	69,8	69,3	67,7
Igantzi	65,4	68,5	69,3	66,0	68,3	69,5	64,3	61,8	60,4	57,6
Lesaka	52,9	54,9	55,9	57,2	59,0	59,2	60,3	60,4	59,8	60,7
Bataz- beste	57,7									62,1

Iturria: Emaginek egina, Nastaten datuetan oinarrituta, INEren errolda jarraituaren estatistikako datuetatik abiatuta.


Aztertu berri ditugun adierazle demografikoak Nafarroako Foru Erkidegoaren bataz-
bestekoarekin alderatzean, joeraren inguruko ikuspegi orokorragoa jasotzen dugu.



1. Grafika. Iturria: Emaginek egina, NASTATEN 2023eko datuetan oinarrituz.

Orain arteko datuek adierazten dute nola zaintza lanen premia duen biztanleriaren hazkunde bat gertatzen ari den eta, kontrara, zaintzaile potentzialen kopurua gutxitzen ari den. Zaintza krisiaren ageriko isla dugu hau Bortzirietan ere.

Indarrean dagoen zaintza erregimenak ondorio larriak uzten ditu zaintza lanen arduraz arduratzen diren haiengan, nagusiki emakumeak. Izan arlo profesionalean –sektore prekarizatua izanik- edo era informalean senideak zaintzeagatik, emakumeen bizi baldintzen bizkar sostengatzen dira egun zaintza premiak dituzten haien bizitzak. Horrela azaldu daitezke arlo ekonomikoan beti gizonezkoek dituzten abantailak, eta pobreziaren feminizazioa.



2. Grafika. Iturria: Emaginek egina, NASTATen 2023eko datuetan oinarrituz.

Eskualdeko datuak aztertzean, agerikoa da Nafarroako pobrezia arriskuaren batzbestekotik -% 21,7-behera kokatzen direla udalerri gehienak -% 17,7 Bera kasuan, % 16,7 Arantzán, % 14,1 Lesakan eta %13,6 Igantzi. Kontrara, Etxalarren pobrezia arriskuan aurkitzen dira herritarren % 23,6, Nafarroako batzbestekoa gaindituz. Udalerri denetan, Foru Erkidegoan bezala, emakumeen kasuan pobrezia arrisku tasa handiagoa da, ia bi puntu artekoa.

Biztanleriaren jatorri aniztasuna

Bortzirietan askotariko jatorrietako herritarrak bizi dira. Migrazio joerei dagokionez, Bera da herritar gehien bizi diren udalerria eta bertan bizi dira eskualdera beste herrialde edo erkidegoetatik etorritako biztanle gehien, 1000 biztanleko 157 alegia. Udalerriaren tamainarekin batea,

Biztanleria etorkina udalerri eta jatorriaren arabera, 2021. ‰

	NAFARROA	Arantzán	Bera	Etxalar	Igantzi	Lesaka
Beste erkidegoetatik	8.616,0	4,0	64,0	25,0	3,0	41,0
Beste herrialdeetatik	8.336,0	0,0	62,0	4,0	5,0	10,0
Guztira	16.952,0	8,0	157,0	41,0	13,0	77,0


Iturria: Emaginek egina, NASTATen 2023eko datuetan oinarrituz.

Egun indarrean dauden atzerriartasun politikek, desparekotasun eta bazterkeriak ezaugarrituriko agertokiak ezartzen dituzte. Giza eskubideen urraketa ahalbidetzen duten politika horiek, jatorri atzerriarreko eta bertakoen arteko egiturazko desparekotasun egoeraren adierazgarri dira. Migratzeko motiboak, egoera legala edota baldintza sozioekonomikoak askotarikoak izanik ere, aurretik azaldu ditugun adierazleekin badute lotura. Lanean zehar sakonduko da emakume etorkinek zaintza

lanen sostenguan arrera herrialdeetan duten paperaren eta bizi duten egoeraren inguruan.


Euskararen erabilera

Bortzirietako herriak udalerrri euskaldunak dira, horietako batzuk arnaguneak, eta udal guztiak dira UEMAKo kide (Biztanleen %70a euskalduna izatea). Euskararen erabilera oso altua da eskualdeko hiru herri txikienetan, eta biztanleria igo ahala euskaldun kopurua jaitسي egiten dela ikusten dugu.



Diagnostiko honetarako, aipagarria deritzogu zein adin tartetean biltzen den euskaldu tasa handiena, hain zuzen ere, menpekotzat hartzen ditugun adinetan kokatzen baitira euskaldun gehienak, batik bat haur eta gazteengan. Horiek horrela, uste dugu, zaintza

premia gehienak dituztenek behar dutela gehien arreta hori euskaraz izatea, eta horra hor erronka.



Menpekotasun aitortua duen Bortzirietako biztanleria

Pertsonak eguneroko zereginak egiteko dituen premien arabera, mendekotasun-egoera honako gradu hauetan sailkatua dago Nafarroako Foru Erkidegoan:

I. gradua. Mendetasun ertaina: pertsonak eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduera egiteko laguntza behar duenean, gutxienez egunean behin, edo autonomia pertsonalerako aldizkako laguntza edo laguntza mugatua behar duenean.


II. gradua. Mendekotasun larria: pertsonak eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduera egiteko laguntza behar duenean, egunean bi edo hiru aldiz, baina zaintzaile baten etengabeko laguntzarik nahi ez duenean edo autonomia pertsonalerako laguntza zabala behar duenean.

III. gradua. Mendekotasun handia: pertsonak eguneroko bizitzako oinarrizko hainbat jarduera egiteko laguntza behar duenean, egunean behin baino gehiagotan, eta autonomia fisiko, mental, intelektual edo sentSORIALA erabat galtzen duelako, beste pertsona baten ezinbesteko eta etengabeko laguntza behar duenean edo autonomia pertsonalerako laguntza orokorra behar duenean.

Mendekotasun aitortuak Bortzirietan, graduaren eta urtearen arabera, 2023

	2019	2020	2021	2022	2023
Ertaina	96	82	61	75	72
Larria	89	98	84	93	94
Handia	52	47	77	69	72
Guztira	237	227	222	237	238

1. Taula. Emaginek egina, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen datuetan oinarrituz.




3. Grafika. Iturria: Emaginek egina, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen datuetan oinarrituz.

2023. urtean Bortzirietako biztanleriaren - 8.537 - % 2,8 ak du menpekotasun aitortua, hau da, 238 herritarrek. 3 mendekotasun gradu aitortzen ditu menpekotasunaren inguruko legeak. Mendekotasun aitortua duten Bortzirietako biztanleen % 30,3ak I. graduako mendekotasuna du, % 33,5ek II. graduakoa eta % 30,3 ak III. graduakoa.

Menpekotasun aitortua duten Bortzirietako Gizarte Zerbitzuetako erabiltzaileak

Mendekotasun aitortua duten biztanleen artean, badira Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen erabiltzaile direnak. Jarraian horien profilak deskribatuko dira.

Joerari dagokionez, erabiltzaileen kopuruak ez du aldaera nabarmenik adierazten. 2022. urtean, pandemia testuingurutik berreskuratzen hastean, gorakada bat nabari da erabiltzaileen artean, eta 42 izatetik 51 erabiltzaile izatera igarotzen dira. 2023. Urteko datuek adierazten dute nola mendekotasun aitortua dutenen artean 46 herritar diren eskualdeko gizarte zerbitzuen erabiltzaileak.




4. Grafika. Emaginek egina, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen datuetan oinarrituz.

Adineko populazioaren artean gehiengoa emakumeak diren bezala, zaintza premia duten adineko pertsonen artean ere gehiengoa emakumeak dira. Zahartzaroaren feminizazioa ere adierazten da gizarte zerbitzuen erabiltzaile profiletan ere, eta badirudi arrakala areagotzen ari dela. 2019. Urtean erabiltzaileen % 60, 5 ziren emakumezkoak eta


gizonezkoak aldiz % 39,5. 2020. Urtean partekatze bat gertatzen bada ere, datuek adierazten dute nola erabiltzaileen arteko desorekak handitzen ari diren. Hala, 2023. urtean mendekotasun egoeran dauden herritarren % 71,7 dira emakumezkoak eta % 28,3 gizonezkoak.

Mendekotasun graduetan ere bilakera ikusten da. 2019an, menpekotasun handiarekin gutxiengoa bazeuden ere, 2023an gradu horretan daudenak dira nagusi. Horrek prebentziorako aukera asko uzten ez dituen arren, datozen urteetan bilakera hori ekiditeko prebentzioan arreta gehiago jartzera behartzen gaitu.




5. Grafika. Emaginek egina, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen datuetan oinarrituz.

Adineko pertsonen artean asko dira bakardade egoeran bizi direnak, horien artean gehienak emakumeak. Honek harreman zuzena du zaintza lanen antolaketarekin, izan ere, emakumeak izan dira zaintza lanetan gehien jardun dutenak eta soldatapean lan egin ez dutenak. Ondorioz, sare sozial eta harremanak sortzeko aukerak mugatu dizkiete, ez baitute denbora, baliabide eta espazio sozialik izan horiek garatzeko. Gainera adinekoak izanik, ingurukoen galerak bizi izan dituzte. Zahartzaroa bakardade egoeran bizitzeari gaixotasuna gehituz gero, larritasun handiko egoeren aurrean topatzen gara.



6. Grafika. Emaginek egina, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen datuetan oinarrituz.

8.3 Bortzietako zerbitzuak eta zaintza egitasmoak




Bortzirietan, Euskal Herri osoan bezala, ez dago berariazko zaintza sistemarik; hots, ez dago soilik zaintzara dedikatzen den sistema publikorik (are eta gutxiago hori gainditzen duenik). Askotarikoak daude, baina bat berak ere ez du zaintza erdigunean.

Orohar adineko pertsonen zaintza artatzen da gizarte zerbitzuetatik, eta Bortzirietan, hortaz gizarte zerbitzuen mankomunitatea arduratzen da.

Zaintza ez da pertsonok bizitzako fase guztietan behar dugun zerbait bezala ulertzen, eta ulerkera mugatu horren ondorioz jardun mugatuko antolaketa dugula esan dezakegu. Arreta eredu nagusiki asistentzialista izaten jarraitzen du eta gehienetan mendekotasunaren barruan kokatzen diren kasuak baino ez direla artatzen.

Zaintza premia intentsiboak dituzten pertsona gehienek laguntzaren bat jaso arren, ez dira asetzen pertsonak eta haren inguru hurbilak dituen behar guztiak, hortaz, ondoriozta dezakegu ez direla zerbitzu estaldura maila ez da intentsiboa, eta egun dauden behar asko estaldura publikotik ez ezik, pribatutik egiten da (zerbitzu pribatuak kontratatuz, edo familiako eremu pribatuan asez).

Etxez-etxeko zerbitzua



7. Grafika. Emaginek egina, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen datuetan oinarrituz.

Egiten diren lanen laburpena:

1. Etxeko garbitasunean lagundu.
2. Arropen txukuntze, garbiketa, lixatze eta joste lanetan lagundu.
3. Otorduen prestaketan lagundu.
4. Garbiketa pertsonalean lagundu
5. Janzten eta arropak eranzten lagundu.
6. Etxe barruan edo kanpoaldean ibiltzen lagundu.
7. Etxeko ekonomian abilezia hartzen lagundu.
8. Elikadura ohitura osasuntsuak hartzen orientatu.
9. Mediku tratamenduetan lagundu eta orientatu.
10. Familiarteko erlazioak sendotzen lagundu.
11. Moldatze lan txikiak; margoketa, bonbila aldaketa, kordinak jarri...
12. Medikura eta bertze gestioak egitera lagundu.
13. Isolamendua saihesteko egunezko laguntza.
14. Erosketa lanetan lagundu
15. Bakarrik elikatu ezin dutenei jaten lagundu.
16. Aisialdiko ekitaldietan lagundu.

Prestazio ekonomikoak

Abenduaren 14ko 39/2006 legeak, zeinak autonomiaren sustapena eta mendekotasunari arreta arautzen duen, hiru prestazio ekonomiko aurre ikusten ditu mendekotasuna aitortzen zaien horiei.


Lehenengoa da familiakoek edo ingurukoek eskaintzen dituzten zaintza laguntzeko, eta Bortzirietan hori 169 pertsonak jaso zuten 2023ko urtean. Bigarrena da zerbitzuei lotutako laguntza, normalean egoitza batera joateko erabiltzen dena, eta eskualdean 17 adineko pertsonak baliatu zuten, eta desgaitasuna zuten 22 pertsonak. Zaintza

profesionalak (etxez etxeko laguntza zerbitzua) ordaintzen laguntzeko 18 pertsonak baliatu zuten. Azken prestazioa, asistentzia pertsonala kontratatzeko bideratzen den laguntza, ez dago Nafarroan oraindik indarrean.

Jubilatuen elkarteak

Arantzan ez ezik, beste herri guztietan daude jubilatuen elkarteak, guztiak jendetsuak eta ekintza ugari antolatzen dituztenak dira. Lanerako jende falta eta berritzeko erronka azpimarratu dute askok. Era berean, emakumeen presentzia handia dagoela aipatu dute, bai antolaketan zein ekimenetan, eta gizonen inplikazio gehiago lortzea erronka dela aipatu dute.

Jarraian bildu ditugu datu batzuk.




Jubiloteka zerbitzua

Zerbitzu hau adineko pertsonak bere ingurunean kognitiboki zein fisikoki aktibo mantentzeko guneak dira. Normalean ariketa fisikoak, estimulazio kognitiboa, solasaldiak, gizarte jarduerak eta sukaldaritza tailerrak egiten dira.

Jubilotekaren lehen hastapenak 2008. urtean izan ziren. Urtez urte partaidetza igotzen eta zerbitzua zabaltzen joan da, gizarte zerbitzuko eta osasun etxeko profesionalen lankidetzari esker.

2022. urteaz geroztik, Bortzirietako bost herrietan eskaintzen da zerbitzua.



8. Grafika. Emaginek egina, Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen datuetan oinarrituz.

Elkarrizan boluntarioak

Bereziki Beran eta Lesakako herritar boluntarioen sarea da, Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearekin elkarlanean aritzen dena. Haien egiteko nagusia adinekoen akonpainamendua egitea da, eta San Jose eta Andra Mari adinekoen egoitzetan garatzen duten egitasmoa.

Gaur egun 63 bolondres dira, 34 emakume eta 29 gizon, eta Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesakan aritzen dira lanak egiten. 2024ko urtarritetik azaro bitarte 3800 boluntario lan ordu egin zituzten, eta horiek banatu dira bazkarietan, irteeretan, paseoetan, kantuan, jubilotekara joateko garraioan, egoitzetan kartetan zein jolasetan aritzen edota kanpokoentzako euskara klaseak eskaintzean Beralandetan.

Adineko pertsonen egoitzak

Gaur egun bi egoitza daude Bortzirietan.

San Jose egoitza Beran dago kokatuta, eta patronato bidez kudeatzen da. Bi zerbitzu nagusi daude bertan, egoitza iraunkorra, arreta integrala dakarrena, eta eguneko egonaldia. 40 egoiliar daude zahar etxean (horietatik 36 plaza Nafar gobernuarekin itaunduak dira) eta eguneko egonaldian 2. Aukera dagoen arren 10 pertsona artatzeko eguneko egonaldia, erizain bakarra dagoenez ez dira ratioak betetzen, eta ondorioz ez dute inor gehiago jasotzen. Erabiltzaileen artean 8 dira beratarrak, Bortzietako beste herrietako 9, eskualdekoak direnak beste 10, Nafarroakoak 3 eta gainerako herrialdeetatik (gehienak gipuzkoarrak) 12.

Sukaldea dute bertan, eta janaldiak bertan prestatzen dira. Bertan ere egiten da arropa guztiaren garbiketa. Astelehenetik ostiralera jardunaldi osoan dago erizain bat, terapeuta okupazionala eta animatzailea. Fisioterapeuta hiru goizez dago, eta psikologoak astean bost ordu egiten ditu. Horrez gain, ileapaindegi zerbitzua eta podologoak dute, baina hori ez da prezio orokorretan sartzen, aparte kobratzen zaie. Orotara 40 langile daude, baina azkenaldiko bajak direla eta lan antolakuntza eta bideragarritasun ekonomikoa ez dira errazak izan.

Andra Mari egoitza Lesakan dago kokatuta, eta kudeaketa publikoa du. 40 erabiltzaile daude egoitzan, eta beste 5 eguneko arretan daude. Horietatik 17 dira Bortzirietakoak, 8 emakume eta 9 gizon.

Gerokultoreez gain, fisioterapeuta, gizarte langile eta erizaina daude arretan, eta sukaldari batek egiten ditu otorduak, bertan.

Egoiliarren arreta hobetzea, eta pertsonen zentratutako arreta eredua geroz eta sakonago txertatzea da bi egoitza hauetan ikusten den erronka handiena.

Afan Elkarte

Alzheimerre duten pertsonen senide elkarte da. Bost herrietako senideek parte hartzen dute, eta orohar hilabetean behin elkartzen dira. Informazioa, harrera eta orientazio eskaintzen zaie, banakako arreta psikologia eta laguntza taldeak. .

2018-2019 Bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko IV itun mankomunatua

Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatearen esparruak lan egin izan duten entitateen eta eragileen artean, itun mankomunatua proposatu zen 2018-2019 aldirako, generoen arteko harreman berriak sustatu eta bizitza pribatu eta publikoan gizon zein emakumeek aktiboki parte hartzeko konpromiso zenbait hartu ziren.

Lehenik, premia ikusi zen Bortzirietako herritarrak sentsibilizatzeko, zaintza eta etxeko lanen banaketa justoarengatik inguruan; bigarrenik, kontziliazioan eragileak trebatzeko; hirugarrenik bikote gazteetan fokoa jarrita, erantzunkidetasuna sustatzeko: laugarrenik, gizonak eredu berrietan kontzientzia hartzeko: bostgarrenik mendekotasuna duren pertsonen arreta egiteko laguntze zerbitzuak sortzeko; seigarrenik kontziliazioa erraztuko duten jarduerak antolatzea; eta, azkenik, adineko zein haurren zaintza zerbitzuak sustatzeko.

8.4. Desgaitasunari arreta: Uxane zentroa eta Maddi egoitza

Bortzirietan desgaitasunari arretarako bi espazio daude, batetik Uxane zentro okupazionala eta, bestetik Maddi egoitza. Bi egoitzetan desgaitasun intelektuala dute guztiek, eta baten batek desgaitasun fisikoa ere badu. Biak Beran daude kokatuak, naiz eta hortik eratortzen diren bestelako baliabideak ere dauden. Adibidez: Aspacek sustatutako zentro bereziak daude Beran eta Lesakan garbiketa brigadekin lotuta, ikuztegia eta jardinaritza. Bi zerbitzuetan fisioterapia, psikologia, aisialdia eta herritartasun aktiboko programa eskaintzen dira.

Maddin, 16 erabiltzaile daude eta horietatik 9 dira Bortzirietakoak, 3 emakume eta 6 gizonezko. 11 langile daude, baina guztiak ez daude jardun osoan. Goiz eta arratsalde bi langile izaten dira, eta gauetan bakarra dago.

Uxane zentroa desgaitasuna duten pertsonei zuzendutako zentro okupazionala da, eta Aspacek kudeatzen du. Beran dago kokatuta eta 25 erabiltzaile ditu. Bortzietakoak dira 17 eta horien artean 10 dira emakumeak eta 7 gizonezkoak. Maddiko 12 erabiltzaile Uxanera joaten dira eta beste guztiak, Aspacek dituen zentro berezietan egiten dute lan.

Finkoak diren 8 langile daude osotara, baina kasu honetan ere ez daude guztiak jardun osoan. Bertako langileek diotenez, ez dute antiguedaderik kobratzen, KPIa kongelatuta dute (nahiz eta berreskuratzeko prozesua abiatuta duten), soldata baxuak dira eta bajak daudenean ez dira kubritzen. Horrez gain, garun paralisiaz gain, desgaitasun mota guztietako pertsonak artatu behar dituztela salatzen dute, eta askotan borondatea izan arren, baliabide falta, formazio falta eta, ondorioz, lanerako zailtasun handiak zein arreta desegokia dela uste dute.

Erronkak:

- Lan baldintzak hobetzea
- Maddik kostu ekonomikoa egokitzea
- Baliabide gehiago eta maiztasun gehiagorekin izatea
- Zerbitzuen garapena: Egoitzak, eguneko zentroak, etxe tutelatuak e.a.

8.5 Adin txikikoei begirako egitasmoak

Zerbitzu publikoak

Hautzaindegi zerbitzua: Bera, Lesaka, Arantza

Lesakako haur eskolan 27 haur daude, eta 8:00etatik 16:00etarako ordutegia du. Bost hezitzaile ditu eta garbitzailea bat, eta guztiak dira emakumeak. Adin ezberdinetako umeak daudenez, Nafarroako Gobernuak talde mistoak egiten ditu.

Ratioak gehiegizkoak direla aipatzen dute, kalitatezko zaintza eskaini ahal izateko. Horren adibide bat zuzendariak bere zuzendaritza lanak ordutegitik kanpo egin behar izatea haurrak hobeto artatu ahal izateko.

Horregatik, lan baldintza duinak eskatzen dituzte, ratiok jaisteko eta soldata igotzeko. Udalaren babesa eskatzen dute Nafarroako gobernuari hartutako konpromisoak betetzea eskatzeko.

Berako haur eskolan 36 haur daude, eta ordutegi berdina du, 8:00etatik 16:00etara. 10 langile dira osotara. Lesakan bezala, ratioekin eta soldatarekin dute erronka handiena, baina oinarrian kalitatezko zaintzak eta arreta zer denaren gaineko ezagutza eta kontzientzia falta dagoela nabarmendu dute. Hezitzaile bakar batek titia hartzen duen 8 ume zaindu behar ditu, edo 2-3 urteko 16. Hori zentzugabetzat jotzen dute, eta kontzientzia aldaketa eskatzen dute.

Gainera, Berako haurtzaindegia kudeaketa zuzena ez duenez, enpresa bat sortzera derrigortuta daude hori kudeatzen duten hiruak eta autonomoak izatera behartzen dituzte, horrek lan baldintzetan dituen eraginekin.

Epe motzera, kalitatezko zaintzak eskaintzen dituen proiektuarekin jarraitu nahi dute, formazioan segi eta haien lan baldintzak eta askotariko baliabidez hornitzeko babes ekonomikoa.

Beran, halaber, Jesusen Bihotza ikastetxeak ere du haurtzaindegia. Eskolaren ordutegia: 9:00-17:00etara da, bi langile daude eta orain 6 ikasle dituzte.

Arantzako haur eskolak 9:00etatik 13:00etara irekitzen du, eta 8 haur jasotzen ditu. Hezitzaile bakarra dago. Udaletik zerbitzua hobetzeko diru laguntzak aztertzen ari da.

Ludoteka: Lesaka, Bera, Igantzi,

Haur txokoa: Lesaka

Solasean programa

(D eta B ereduetan matrikulatuta egonda ere euskaraz ikasteko zailtasunak dituzten ikasleentzako errefortzu programa)

Haur txokoak eta ludoteka

Berdintasun zerbitzuak gabonetan eskaintzen ditu. Lesakan zehazki, urritik maiatzera astegunetan arratsaldero udalak zerbitzua martxan du, eta aste santuan ere.

Haur Txokoaren helburua haurrek haien denbora librean kulturarekin eta harreman afektiboekin jostatzen eta gozatzen ikasteko gune bat izatea da, solidaritatean eta berdintasunean oinarritzen dena. Bidenabar, zerbitzu honen bitartez, gurasoei aukera bat ematen zaie seme-alaben heziketa euren lanarekin edota denbora librearekin bateratu ahal izateko.

Udaleku irekiak

Udaleku irekiak orain arte Euskara mankomunitatetik sustatu den egitasmoa izan da, eta euskararen erabilera sustatzeko helburua izan dute. Hala ere, azken urteetan beste funtzio batzuk ere bete dituztela ikusi da, eta bizitzako eremuak bateratzeko, eta zaintzarako bete duten egitasmoak ere badirela baloratu da.

Lesakako udalarekin dagoen hitzarmenari esker 7 astez eskaintzen dira udalekuak, baina beste herrietan lau astera mugatzen dira. Beharra ikusten da urteko opor sasoi guztietara zabaltzeko, eta udaran, bereziki, lau astetik gora izateko.


Egoera zaurgarrian dauden familientzako ere, hobari sistema bat jarri zen martxan, eta baldintzak betetzen dituzten familiek %50eko deskontua dute udalekuen kuotan.

Desgaitasuna duten adin txikiko pertsonen begirako udalekuak egon baziren ere (Anfas eta Aspacek sustatzen zituztenak), horiek bertan behera gelditu ziren orain dela urte batzuk. Horren ondorioz, azken urteotan hiru plaza gordetzen dira desgaitasuna duten haurrentzat, eta begirale bana jartzen zaie.

Guraso elkarteak

GURASO ELKARTEAK				EKIMENAK
ETXALAR	44 familia	Juntan:  5 emakume eta gizon 1	Baliabideak: Jantokia	- Mari Domingi eta Olentzero - Haurren egunak ekainean eta bestetan. - Jangelaren aldeko ekintzak - Korrikako berendua - San Juan sua
LESAKA OTXOGORRIENEA	11 familia	Juntan:  10 emakume eta 2 gizon	Baliabideak: Jantokia	Kultur ekitaldiak
IRAIN HERRI ESKOLA	13 familia	Juntan:  12 emakume eta gizon 1	Baliabideak: Goiz harrera Frantsesa	Ekintza kulturala Bestak Euskararen aldeko ekitaldiak
BERA IKASTOLA	12 familia	Juntan:  8 emakume eta 4 gizon	Baliabideak: Jantokia	Batzordeak ikastolaren kudeaketa administratiboa du, eta hainbat giza baliabide, eraikuntza eta ekipamenduak kudeatzen ditu. Plan estrategikoa ere kudeatu du.
JESUSEN BIHOTZA	20 familia	Juntan:  2 emakume	Baliabideak: Jantokia	Lurraren eguna Meriendak Hitzaldiak Materialaren erosketa
TOKI ONA INSTITUTUA	13 kide	Juntan:  Guztiak emakumeak		Bereziki hitzaldi eta tailerrak eskaintzen dira.
RICARDO BAROJA	11 kide	Juntan:  10 emakume eta gizon 1	Baliabideak: Jantokia	Kultur ekimenak, eskolaz kanpoko jarduerak diruz lagundu
IGANTZI	8 familia	Juntan:  5 emakume eta 3 gizon	Baliabideak: Jantokia Emozio hezuntza	Bestetako ostatua Eguberrietako eskia Olentzero, kabalgata, lhauteriak Bestak, errifak, egutegiak...
ARANTZA	53 familia	Juntan:  7 emakume	Baliabideak: Jantokia	- Azaroan izaten den Aste Kulturalen parte hartu, azken urteetan ipuin kontalari batekin. - Palestinar haurrei elkartasun mezu eta talde argazkia. - Eskola kontseilu eta bizikidetzak bilertan parte hartu. - Eguberrian, Olentzero-Mari Domingin eta Errege Kabalgaten kalejira antolatu. - Herriko Bestetan haurrentzako ekintzak - Eskolako jangelaren kudeaketa

GURASO ELKARTEETAN DAUDEN ERRONKAK:




Nerabe eta gazteei begira, gizarte zerbitzuetatik ere hainbat egitasmo daude martxan eskualdean. Drogen erabileraren eta harreman sexu afektiboen gaineko tailerrak, prebentziorako kanpainak eta festetan herriz herri joateko Bestebusa, besteak beste.

9. Analisi kualitatiboa

Talde elkarrizketak lehenetsi ditugu Bortzietarako zaintzen antolaketaren analisi kualitatiboa egiteko.

5 izan dira osotara, orotariko zaintzaile eta hainbat zerbitzu erabiltzaileekin.



Eguneroko gatazkatsua

Orohar esan dezakegu menpeko pertsona bat zaintzen dutenek, bizitzaren aldaketa handia sentitzen dutela, erabat aldatzen dela ordurarteko bizitzarekin alderatuta. Haien bizitzako ia guztia utzi, eta 24 orduz beste pertsonaren pendiente egotera pasatzen baitira. Azken hau da, behin eta berriz Bortzirietako Afan taldeko senideek diotena ere. Zainduaren gainean egon behar dute egunero eta 24 orduz, nahiz eta batzuetan jarduera batzuk bere kabuz egin ditzaketen, edo zaintzaile profesional baten laguntza izan. Ondorioz, lan karga izugarria sentitzen dute. Hori bereziki areagotzen da, sare familiar txikia dutenen kasuan, adibidez alaba bakarrak direnen kasuan.

Gainera, azpimarragarria da zaintzen duten senideen lan zama ulertzeko, zaintza lanen aldiberekotasuna kontuan hartzea. Lanak ez dira beti jarduera zehatzak, ekintza konkretu bat, baizik eta egoera mental bat. Eta horregatik aipatzen da karga mentalaren afera dela zaintzaile afektiboen kasuan landu beharrekoa.

Horri gainera, bizitzako bestelako aspektu batzuekin uztartu behar bada, enplegua adibidez, kontziliazio gatazka handia ematen da, eta asko derrigortuta daude jardun murrizketak eskatzera, edo bestelako baimenak baliatzera. Kasurik zailenetan, enplegua uzteko hautua ere hartzen dute hainbatek, bereziki emakumeen kasuan.

Menpeko pertsona guztien egoera ez da berdina, eta Bortzirietan, momentuz, Alzheimerra duten pertsonen senideekin izan gara. Aipatu dute, eguneroko gatazkatsu hori gaixotasunak zeharkatzen duenean, gatazka horiek indartzen dituzten faktoreak ere sartzen direla; izan ere, pasa behar dute bikote edo seme-alaba izatetik, zaintzaile nagusia izatera (haien “ama” izatera aipatzen dute askok), eta gaixotasunaren onarpena prozesu oso gogorra dela.

Laguntza publiko-komunitarioa

Bat egiten duten honakoan ere: ez daude nahikoa baliabide publiko dauden zaintza beharrak asetzeko. Are gehiago, zaintza egoerekin lotutako kudeaketak izapidetzeko prozesu asko ezezagunak dira, bai horien beharra duen pertsonarentzat edo haren ingurunearentzat. Hau da, askok ez dakite zer egin, egoera iritsi aurretik. Horrez gain,

laguntzak muturreko egoeran daudenean eskatzen dira, eta horrek asko zailtzen du kudeaketa, urgentziagatik, askotan.

Horietako bat menpekotasun balorazioak dira. Burokrazia handiko prozesuak dira, motelak, eta askotan baloarzioak iristen direnerako pertsona hori ez dago bizirik, horrek sortzen duen ezinegon eta minarekin.

Gaixotasun batzuetan sortu daiteken menpekotasuna ez da hain agerikoa, eta hortaz balorazioak eta horietatik eratortzen diren baliabideak ez dira hain zuzenak, alzehimerraren kasuan bezala. “Bata txuriaren sindromeak” ere zailtzen ditu horrelako prozesuak; izan ere, buru argitasuna datorkie gaixoei mediku edo erakunde bateko ordezkari baten aurrean. Horregatik, etxera etortzea, eta bere egunerokoan balorazioak egitea lehenetsi beharko zela uste dute.

Zerbitzu sozialen laguntza nahikoa ez bada ere, balorazio positiboa egiten dute, eta azpimarratu, gizarte langile iraunkorra izateak, balio handia duela jarraipena egiterako garaian.

Afan elkarteak eskaintzen duen taldearen balorazioa positiboa da guztiz, haien kezkak, ezinegonak artatzen dira, estrategiak ikasi, eta indarberrituta ateratzen dira. Adineko pertsonen zaintzan askotan sentitzen dute senideei begirako laguntza urria dela, eta gaixotasun espezifikokoak tarteko dauden, are eta gehiago. Hortaz, indartu beharreko eremua dela uste dute. Dena dela, badago zer hobetu, eta horrelako babes eta laguntza Bortzirietatik eta gizarte zerbitzuetatik abiatu beharko litzatekela uste dute, eta ez elkarte baten menpe utzi bakarrik.

Jubilotekek ere arnas guneak dira haientzat, eta haien senideentzat. Hala ere, zailtasun bat ikusten dute azkenaldian: menpekotasun altua duten geroz eta pertsona gehiago joaten dira, eta geroz eta zaharragoak. Hortaz, jende gazteagoarentzat, edo menpekotasun handirik ez dutenentzat espazio deserosoak bilakatzen dira. Horrek eskatzen du, baliabideen dibertsifikazioa, eta pertsonalizazio gehiago. Eskaintzen den eguneko zentroak ere arazo berdina duela azpimarratzen dute, beharrak dituzten guztiak sartzen direlako hor, eta saski naski gisa funtzionatzen duelako.

Zerbitzu psikologikorik ez dute. Osasun zentroan zerbait eskaintzen dela aipatzen den arren, pribatura joatea bultzatzen dela diote.

Elkarrizan gisako egitasmoak oso positiboki baloratzen dira. Egiten dituzten ekintzek arnasa ematen dutela, eta adinekoak laguntzen dituela uste dute.

Eragin fisiko eta psikologikoak

Orohar leher eginda sentitzen dira. Fisikoki ikututa badaude ere, lan gogorrena emozionala dela ageri da. Beldurra, kulpa, nekea, ezintasuna, onarpen eza dira besteak beste gailentzen diren sentimendu eta emozioak. Horiek kolektiboki lantzearen premiaz ohartazten dute, eta horretarako baliabide gehiago martxan jartzeaz.

Aurrera begirako proposamenak

- Baliabide mota eta kopurua eta horien eskuragarritasuna aztertzea
- Baliabideen informazioaren hedapena
- Zaintzaileak zaintzeko espazio publikoak: Arnas gune gehiago
- Burokratizazioa arintzea
- Adineko pertsona zein gaixotasunak dituztenei begirako baliabide publiko eta komunitario gehiago
- Sentsibilizazio eta kontzientziazioa lantzea

9.2 Amatasunak eta beste amatasunak

Ama egiteko eta amatasunaren esperientziak bizitzeko erak anitzak dira, emakume guztiok ama egin edo ez zeharkatzen dituen gaia da. Gai konplexua da, ez dago zalantzarik. Izan aukera, esperientzia, erabakia, ezintasuna edo uko egiten diogun zerbait, emakume ugari zeharkatzen gaitu, eta horregatik askotan entzun da esperientzia kolektiboa ere badela. Era berean, oso era intimo eta pertsonalean eramaten diren kontuek ere zeharkatzen dute, eta horrek gure erabakimenekin zein erraiekin lotzen gaitu, eta askotariko emozio eta sentipen sortu.

Emakumeon derrigorrezko destino izan da, eta, era berean, emakume askoren desio. Eta horra amatasunak eraldatzeko korapilo nagusia.

Ondoren ditugunak amak eta amonak egin diren emakumeen esperientziak jaso ditugu.

Haurdunaldia eta erditzea

Haurdunaldiaz geroz eta gehiago hitz egiten bada ere, ez dauka ikusgarritasun handirik sozialki, ez eta haurdun dauden emakumeen gorputzek, ezta erditzeak berak ere. Haurdunaren ongizatea baino, haur berriaren jaiotza lehenesten dela agerikoa izateaz gain, osasun zerbitzuetako jardunean ere hala materializatu izan da.

Edonola ere, haurdunaldi prozesuak geroz eta gehiago planifikatzen dira eta horretarako baliabideak hedatu dira Euskal Herriko testuinguruan, batez ere, 80ko hamarkadaz geroztik. Hala, literatura zabala eskaintzen da, baina oraindik baliabide publikoak ez dira ugariak.

Bortzirietako aztertutako amen kasuan, ikusi da eremu publikoak eskaintzen duena eta pribatutik eskaintzen dena konbinatu behar izan dutela, izan ikuspegiengatik, izan ematen diren ordutegiengatik, izan mugikortasunagatik.

Eremu publikotik jasotako arretaren balorazio positiboa egiten den arren, murrizta da, eta profesionalen arabera asko aldatzen dela aipatu da.

Erditzeak orohar sortzen du beldurra. Ginekologia, pediatria eta obstetrizia gizonen kontrolpeko diziplina bihurtu ziren XIX. mendean; emakumeek ez zuten sarbiderik diziplina horietara eta haien gorputzen eta jakintzen gaineko desjabetzea erabatekoa izan zen. Emaginek euren lana alboratu behar izan zuten, medikuen eskuhartzea hobetsi zuelako jendarteak. Bizitzaren jaiotza eta emakumeen gorputza, jakintza tekniko-mediko-merkantilen esku geratzen joan zen. Horregatik, osasun publikoek egun duten ginekologiaren ulerkerari, eta haurdunaldi eta erditze prozesuak bideratzen dituzten moduari mesfidati eta beldurrez begiratu izan zaio. Azkenaldian geroz eta oihartzun zabalagoa izaten ari duen indarkeria obstetrikoa gurutzatzeko aukerak, are eta nabarmenagoa egin du beldurra elkarriketatuen artean. Salaketek aurrera egin ahala gehiago sozializatu dira erditzean jasotzen den arretan egon daitezkeen erasoak, baina oraindik ez dira egiturazko aldaketak egin, erasook gerta ez daitezen, eta pasa arte buruan bueltaka izan dute.

Bortzirietan Donostiara erditzera joateko joera egon den arren, gertuago dagoelako eta erditzearen ikuspegi berritzaileagoak izan direlako, azken urteetan Iruñara ere bideratu dira zenbait eta esperientzia positiboak ekarri dira. Orohar, guztiek esperientzia positiboak kontatu dituzte erditzearen gainean, eta tratu ona jaso dutela baieztatu. Baten

batek ere erditzean izandako ahaluntze prozesua eta gorputzaren gaineko ezagutza jarri du erdigunean, aurretik izandako beldurren gainetik.

Erditze ostea eta edoskitzea, epaiak zeharkatuta

Edoskitzearen kultura ere bide gora-beheratsua izan da: behi-esnearen eraldaketan emandako aurrerapen zientifikoak eta biberioa hobesten zuten diskurtso medikuek, emakumeak lan merkaturako libreago egotea ahalbidetu zuten. Hala, XX.mende erdian bularra ez ematea modernitate eta askatasun ikur bilakatu zen. Kontrara, egun bularra ematearen aldeko ahotsak itzulera izan dute, eta bigarren hau hobesten da jendartearen.

Bularreko esnea ez harteak sekulako kulpa sentimendua sortzen du, uste baita amaren errua dela, esne txarra duelako edo. Umeek pisua hartzen ez dutenean ere oso zamatsua izaten da, eta ezbai etengabe batean aurkitzen dira emakumeak zer egin ez dakitela, presioak norabide guztietatik sentitzen dituzte. Elkarriketatu batek ere, umeari esnea ezin ziolako eman ere “hondoratu” zela aipatu du, nahiz eta aurretik kontziente izan zein diren diskurtsoak, zein diren aukera baten zein bestearen onurak eta abantailak.

Bularra eman ala ez, eta denboraren arabera, praktika guztiak epaituak dira, baina argi dago baldintzatzaile ugari daudela hautu bat edo beste egiteko eta baliabide eta informazioa eskura izatea dela gakoa, norberak modu askean erabaki dezan.

Horregatik, edoskitzearen bueltan sorturiko taldeek babes handia ematen dutela diote, esperientziak partekatu eta sareak egiteko.

Epaia hala ere, ez da edoskitzera mugatzen; izan ere, amek egiten duten guztia epaitua izan daitekeela sentitzen dute. Edozer eginda ere inguruko guztiek dute zeresana, eta hori amen artean ematen dela ere onartu dute. Horrek erakusten digu, oraindik badugula ama onaren iruditeria zabaldua, eta hortik ateratzen den guztia kritikatu da.

Zerbitzu publiko eza

Haurdunalditik haurren heziketa fase luzera zerbitzu publikoak garatuta ez daudela aipatu da behin eta berriz. Esan bezala, haurdunaldian zein edoskitzean indartu beharra dago ama egingo denari begirako berariazko laguntza, baita prozesu guztiaren jarraipenean hori atendituko duten profesionalen kopurua ere; izan ere, behin eta berriz aipatzen da emaginen, pediatren eta medikuen presentzia handitu behar dela Bortzirietan.

Horrez gain, umeak aurrera egin ahala kontziliaziorako bitarteko gehiago behar dira. Eta horien barruan asko baloratzen den zerbitzua haur eskolarena da. Ez dago herri guztietan, eta denak ere ez dira egokitzen gurasoek dituzten beharretara. Horregatik, horiek berrikusi eta garatzeko estrategietan pentsatu behar dela uste dute elkarriketatuek.

Enpleguan zigorra

Gurasotasunetik eratortzen den lan zama handiena amek hartzen dute, oraindik orain, eta horrek ibilbide profesionalean eragin zuzena du. Baina geroz eta pisu gehiago du guztion bizitzan enpleguak, eta hor ere exigentziak ez dira nolanahikoak. Horregatik, elkarriketatuek diote, sentitzen dutela presioa ama izateko enplegurik izango ez balute bezala, eta lana egiteko ama izango ez balira bezala.

Askotariko bizipenak aurkitu ditugu enpleguarekiko. Batzuentzat oso zaila izan da ibilbide profesionala eten eta “produktibo” ez sentitzearena, zaintzari balioa eman arren, identitate berri horretan eroso egotea. Lanera buelta eskertu dute beste batzuk; izan ere, haien bizitzaren parte bat berreskuratzea bezala zela sentitu dute.

Zaintzeak zigorrak dakartza emakumeentzat, eta amen kasuan enpleguan ere baditu. Horren adibide da askotan amatasunagatik kanporatua izatearen arriskuan bizitzea, edota kanporatua izatea. Hori ere gertatu da Bortzirietan.

Gizonen erantzunkidetasun eza

Lan zama handiena haiek dutela diote, aitzak izan arren, ardura nagusia haien gain gelditzen dela sentitzen dute, eta gizonen aldetik eremu honetan ere erantzunkidetasun falta dagoela. Kexu dira lan banaketaz, baina bereziki sostengu emozionala emateko duten zailtasunaz (gaur egun maskulinitate hegemonikoaren oinarrietako bat da prekariedade psikoemozionala). Eta horrek zerikusi handia du egun dagoen gurasotasunari buruzko literatura guztiarekin; izan ere, aitei zuzendutakoa asko zentratzen da umorean, gaitasun faltan eta ikuspegi erabat indibidualistan. Aldiz, amei zuzendutakoak ikuspegi kolektiboa ere badu, emozioen inguruan, aldaketen inguruan edota gorputzean zein bizitzan ematen diren aldaketaz hitz egiten du.

Gainera gizonak saritzen direla sentitzen dute. Ama onaren figura betetzea, utopikoa ematen duen bezala, aiten kasuan oso erraza da. Haien bizitza mantentzeko oinarritzko gauzez arduratzeagatik saritzen zaie, eta hortaz haurrarekin egiten duen edozerrengatik

sarituak dira gizonak. Horregatik esaten da aitatasuna oparitu egiten dela, ezer gutxi eginez prestigio gehiago lortzen baitute aitek. Eta antzeko norabidean gertatzen da umerik gabe gauzak egiten dituztenean gurasoek. Emakumeen kasuan beti haurrengatik edo haien zaintzarengatik galdetzen zaien bitartean, aitek edozer gauza egin dezakete eta inortxok ere ez die galdetzen haien haurrengatik, eman behar gizonak ez diotela ezerri uko egin behar aita izateagatik, eta amek zaintzari ez ezik, beste guztiari.

Isolamendua eta saretze berriak

Ezinbestekoa da inguruaren laguntza, baina amatasunetan ere odolezko familiaren laguntza da lehenengoa eskatzen, eta zuzenean jasotzen dena. Norabide honetan aipagarria da beste behin familiako emakumeek duten presentzia, eta bereziki amonek dutena. Haiek dira nagusiki ama falta denean haurren zaintzaz arduratzen direnak, eta askotan gainera amaren amak dira haurraren zaintza eta etxeko lanak egiten dituztenak.

Ingurua ordea beste erritmo batean doala sentitzen dute, eta halako talka bat ematen dela betiko sare sozialakin. Horren bakardadea eta isolamendu sentazioa ekar dezake, baina egia da amatasunak beste toki bat eskaintzen duela, eta horren bueltan sare berriak sortzen direla.

Horri guztiari aurre egiteko autozaintzaz eta terapia beharraz mintzatu dira elkarriketatuak.

Aurrera begirako proposamenak

- Haur eskolak: 0-3 zikloan baliabide publikoak eskaintzea herri guztietan.
- Osasungintza profesional gehiago egotea
- Erditze osteko arreta, fisiko zein psikologikoa
- Sare komunitarioak
- Gurasoen arteko espazioak, esperientziak partekatu eta elkarrekin ikasteko
- Udalekuak

9.3 Zaintzaile profesionalak

Asko dira zaintzaileek dituzten perfilak, baita eremu profesionalean ere. Horregatik, kolektibo bakarraz mintzatzerik ez dago, eta bakoitzaren berezitasunak aipatzea garrantzitsua da, osotasunean aldaketak egikaritu nahi baditugu. Askotarikoak izan arren, badituzte ezaugarri komun batzuk, bai Bortzirietan, baita Euskal Herriko beste lurraldeetan ere ikus ditzakegunak: gehienak dira emakumeak, klase baxu eta ertainekoak, eta geroz eta gehiago atzeritik etorritakoak. Zaintza haien lan sektorea izateaz gain, bestelako zaintza ardurak dituzte gehienek, era zuzenean edo utzitako jatorrizko herrialdean.

Haien lana ez dute behar bezala aitortua sentitzen, eta, diotenez, askotan ez dira zaintzak dituen dimentsio guztiak ezagutzen, ez bada zuzenean ardura hori aurrera ateratzea tokatu zaizula hurbileko norbaitekin. Izan ere, zaintza ez da soilik eguneroko ekintzetan laguntzea, baizik eta da behaketa, konfiantza eraikitzea, prebentzioa, komunikazioa, sostengu emozionala eta abar luze bat. Zaintza premia intentsiboak dituzten pertsonal dira gehien baloratzen dituztenak, haien iritziz. Horregatik, artatzen dituzten pertsonengandik oso baloratuak eta estimatuak sentitzen dira. Aldiz, jendartean bi alde ikusten dituzte: batetik, zaintza profesionalak meritu eta dohain berezi batekin lotzen dituztenak daude; bestetik, lan zikintzat eta nazkagarriekin lotzen dituztenak. Biak hala biak dira zaintza lanak gutxietsi eta gutxi batzuen esku uzteko jarrera orokortuak, ez baitituzte ulertzen zaintza lanak guztioi dagozkigun lanak eta denok ikasi beharrekoak bezala.

Guztiek azpimarratzen dute zein garrantzitsuak diren egiten dituzten lanak, eta zaintzaren alderdi subjektibo horri erreparatzea, lan, denbora eta jarduera zehatzez harago. Hau da, alderdi material hori ezinbestean landu behar da, baina konpromisoa, afektibitatea eta konfiantza eraikitzea ezinbestekoa dela diote. “Pertsonekin lan egiten dugu”, da gehien errepikatzen duten esaldia, ulertarazteko, zaintzak zuzenak direla (norbait garbitu, jaten eman, jantzi...), baina badituela hainbat jarduera ez direla zuzenak (janari prestatu, jantziak garbitu, ohea egin...), eta gainera, emozioak, sentipenak, afektuak edo afektu ezak, zein maitasuna edo maitasun eza gurutzatzen diren. Gainera, egoera oso zaurgarrian dauden pertsonekin egiten dute lan, zahartzaroan daudenekin,

behar bereziak dituztenekin edota bizitzako azken urteetan sartzen ari direnekin. Guztiak bat datoz: ahal den eta bizitza atseginena egiten saiatu behar diete.

Balio handiko lanak dira haientzat, ezinbestekoak bizitzaren sostengurako, eta gustoko dute haien lana, ekarpen pertsonal handia egiten diela diote.

Etxez etxeko laguntza zerbitzua

Zerbitzuaren ezaugarriak

40 pertsona artatzen dira, eta langile bakoitzak normalean 5-6 pertsonen arretaz arduratzen da. 7 emakume daude, horietako hiru jardun osoarekin, eta besteak partzialarekin. Batzuen kasuan jarduna osatzea gustatuko litzaieke.

Gehienez bi orduko zerbitzuak eskaintzen dira, baina oso gutxi dira 2 ordu dituztenak, normalean saiatzen baitira dagoen eskari guztia kontuan hartzen, eta banatzen. Ez dute sentsaziorik erlojuaren kontra egiten dutenik lana, ez bada batzuetan ibilbide asko egin behar dituztela, eta, ondorioz, erlojuari begira egoten direla, baina aukera dute hori gizarte langilearekin hitz egin eta moldatzeko aukera izaten dute.

Garai batean guardiak eta minimoak egin izan ziren, baina gaur egun ez da horrelakorik eskaintzen.

Zerbitzua astelehenetik ostiralera eskaintzen da, goizeko ordutegian. Kontziente dira mugatua dela, arratsaldean eta jai egunetan familietan premiak ere badaudelako, baina horrela dago antolatuta momentuz. Antolaketa egokirako, familiek ezin dute ordutegia erabaki, eta batzuetan kontziente dira, ez direla familien desioetara egokitzen.

Zerbitzuak beraz ez ditu herritarren zaintza behar guztiak asetzen, arnasa hartzeko zerbitzu izaera du gehiago. Ez du izaera intentsiborik, eta, ondorioz, familiak arduratzen dira beste eguneko ordu guztiez, edota etxeko langile baten kontrataziora jotzen dute. Azken hori da geroz eta familia gehiagok erabiltzen duen estrategia.

Arreta eredua

Geroz eta gehiago entzuten da arreta eredua aldatu eta pertsonen zentratutako arretarako trantsizioan gaudela. Hala ere, haiek ez dute sentitzen gaur gaurkoz baldintzarik dagoenik pertsona bakoitzak behar duen berezitasunekin

Menpekotasuna geroz eta handiagoa

Aldaketak ikusten dituzte arreta jasotzen duten pertsonen perfilean. Geroz eta menpekotasun handiagoa duten pertsonak artatzen dituzte. Batzuen kasuan zaharragoak, urte gehiagoz mantentzen direlako etxeetan, eta bestetik geroz eta gazte gehiago artatzen dituztelako buruko osasun arazoekin.

Familien karga oso handia dela uste dute, gaingaituta daudela. Horregatik, zerbitzu gehiago eta egoitzak behar dira, horri aurre egiteko.

Lan baldintzak

Lan baldintzekin konforme ageri dira langileak. Hala ere, uste dute langile gehiago beharko liratekela Bortzirietako beharrak artatu ahal izateko. Gainera, batzuen ustez, jardunak osatu daitezke, prest daudenen kasuan, noski.

Ordezkapenetan ikusten dute dutela erronka handiena. Hori nola antolatu ez da eta erraza izaten, lan poltsetan egon daitezkeenak ez direlako beti prest dauden langileak.

Koordinazioa

Hilabeteen behin taldeko bilera bat dute. Bertan lantzen dira gai orokorrak, kezkak eta taldeko beharrak. Horrez gain, hilabeteen behin bilera indibidual bat izaten duten gizarte langilearekin, pertsona bakoitzaren jarraipena egiteko.

Egunerokoan komunikatzeko telefono bidezko talde bat dute, eta hortik eskaera zehatzagoak, azken orduko gauzak e.a. komunikatzen dituzte. Gizarte langilearekin ere eguneroko harremana dute, eta komunikazioa etengabea da.

Koordinazio ona dutela eta giro onean lan egiten dutela diote.

Formazioa

Formazioa sustatzen eta laguntzen da. Kilometrajea eta denborak kontuan hartzen zaizkie formazioa egiten ari badira. Horiek horrela, asetuta ikusten dute alor hau.

Eragin fisiko eta emozionala

Askotan artatzen dituzte menpekotasun handia duten pertsonak, eta diotenez etxeak ez daude askotan prestatuta, haien osasun fisikoa kaltetzeraino. Haien lanean garrantzitsua da pertsonak nola artatu eta nola mugitu ikastea, baina baliabide ezak askotan haien gorputzean eragina du.

Horrez gain, garrantzitsua da formazioa eta metatzen den zama emozional guztia nonbaiten depositatzeko guneak sortzea. Dueloa, heriotza, gaixotasunen nolakotasunak...landu egin behar dira.

Zahar egoitzetako langileak

Aurretik aipatu bezala, bi egoitza daude Bortzirietan eta batean eta bestean ez dugu egoera berdina topatu. Beran, langileak lan baldintzak hobetzeko prozesuan murgilduta topatu ditugu txosten hau egiten ari ginen bitartean, eta Lesakan, barne berrantolaketa betean. Beraz, jakitun gara bildutako informazioa, ziurrenik epe motzean alda daitekela.

Era berean, bi egoitzak txikiak dira, eta horrek aukerak biderkatzen ditu bizi kalitatea hobetzeko. Baina Lesakako egoitzan jende autonomo gehiago dago, eta izaera erabat irekia du, eta aldiz, Beran itxiago da, dementzia eta mendekotasun altuko egoiliarrek dituztelako. Horrek ezberdintasunak sortzen ditu arreta ematerakoan, dauden beharretan zein lan egiteko moduetan.

Arretaren kalitatea, askotan erlojuaren kontra

Berako egoitzan, beti erlojuaren kontra ari dira lanean, eta horrek eskaintzen duten zerbitzuaren kalitatean eragiten du, pertsonaren autonomian, eta egin daitekeen plan prebentiboan. Guztia presak ezaugarritzen duen zerbitzu bat dela diote.

20 minutu dituzte gehienez egoiliar bakoitzarekin. Goizetan normalean higieena, gelen garbiketa eta gosariak eta bazkariak ematen dira. Eta arratsaldean siestatik esnatu, merienda eta afaria zein oheratzea dira lan nagusiak. Gauak bereziki estresanteak direla aipatzen dute; izan ere, egoiliar guztiak pasa behar dute komunetik, eta oheratu egin behar dira, baina ez daude langile nahikoak horretarako.

Bereziki arreta deitzen du eta langileak kezkatzen ditu zerbitzu honetan adineko pertsonak guztiz galtzen dutela haien bizitzaren gaineko erabakimena. Dena da inposatua, ordutegiak, antolaketa, haien beharrak noiz izango diren artatuak, zein arropa jantziko duten... Hori justua ez dela iritzi dute. Izan ere, haien bizitzako azken txanpan haien balioek eta nahiek ez dute inongo tokirik, ez dira burujabeak, eta erlojuak agintzen du etengabe.

Gainera, zerbitzua erabat nahastuta dagoela diote, gerontologoek guztia egin behar baitute. Hau da, garbiketaz eta pertsonen arretaz arduratu behar dute, eta banatuta egon beharko lukela uste dute.

Lesakan aldiz, egoera bestelakoa dela aipatzen dute. Hobetzeko asko dagoela adierazten duten arren, haien esku dagoena egiten dutela aipatzen dute. Ez dute sentitzen beti erlojuaren kontra aritzen direnik, baina denbora beti da gutxi. Ezin dute guztiz pertsonengan zentratutako arreta eman, egoiliar bakoitzaren jarraipena estua bada ere, denbora nahikorik ez da izaten guztia egiteko. Izan ere, askotarikoak dira egoiliar perfilak, dituzten desira eta beharrak, egunetik egunera aldatzen dira, eta beti ezin dituzte egikaritu. Instalazioek ere ez dute beti laguntzen; izan ere, mugatu da eta komunak adibidez momentu batzuetan ez dute dauden premia guztietarako ematen.

Halaber, ateak irekita izateak asko laguntzen du egoiliar beharrak eta nahiak asetzen, beti langileek lagundu badezakete zeregin horietan.

Menpekotasun mailak baldintzatzen du

Berako egoitzan ikusten da oso hauskor daudenean iristen direla egoiliarrak, eta horrek zerbitzuan eragin handia du, menpekotasun oso handiko pertsonen denbora gehiago behar dutelako, eta hori ez delako kontuan hartzen ez egoitzaren antolaketan, ez langileen kontratazioan ezta artatzen diren profiletan ere. Horregatik diote pertsonetan zentratutako arretatik oso urruti dagoela gaur egungo eredua, nahiz eta hitz ponpoxo horiek baliatu zerbait aldatzen ari dela sinestarazteko.

Lesakara aldiz jende autonomoagoa iristen da, eta egoitza izaera zein funtzionamendua erabat aldatzen du.

Lan baldintzak

Denbora ezak ezaugarritzen duen lana da, eta horrek guztiz eragiten du lanaren kalitatean eta lana egiteko dituzten baldintzetan, ezin baitute ondo artatu, eta gustatuko litzaieken bezala zaindu.

Baina horrez gain, kexa ugari dituzte Berako egoitzan. Batetik gardentasun falta salatzen dute, eta antolaketarekin arazoak daudela. Bajak hartzeko presio dezente sentitzen dute, eta ez daude ados hartutako erabaki batekin. Haien soldatako zati bat fundazioak hartzen du eta horrekin bajak kubritzeko kutxa bat sortzen joango direla aipatu diete. Hartutako

erabaki hori ez da adostasunez hartu, eta gainera ez dakite zeinei aplikatu zaion eta zeinei ez. Ondorioz, mesfidantza agertzen dute.

Lesakan aldiz, pozik daude azken aldaketekin. Hitzarmena berritzeko prozesuan pertsonala gehitu dute arratsaldean eta ordutegia jarraia izatera pasa da. Hala ere, kontziente dira haien lanarekin bat ez dutela egien soldatek, eta hori gehiago lantzeko premia sentitzen dute.

Koordinazioa

Beran, gutxietsiak sentitzen dira, eremu honetan ere. Haiek dira etengabe egoiliarrekin daudenak, baina gero inortxok ere ez die galdetzen ezer. Garai batean koordinazio bilera bat izaten zuten, bakoitzaren lanaren eta zaintzen zituen pertsonen jarraipena egiteko, kezkak argitzeko eta hobekuntzak proposatzeko. Baina gaur egun zaintza zuzenean daudenek ez dute jarraipen horretan parte hartzen. Teknikariek soilik parte hartzen dute (gerentea, erizaina, auxiliarra, animatzailea, terapeuta okupazionala) Ez dituzte deitzen, eta ez dakite noiz diren bilera horiek. Lesakan ere utzi diote koordinazio bilerak egiteari, eta langileek ez dakite zehazki zein den arrazoiak, akaso denbora falta izan daitekela diote.

Haien lanaren oinarria da gerokulturek egiten dituzten parteak, baina askotan parte horiek ez dute jasotzen pertsonaren gaineko informazio garrantzitsua. Horregatik, uste dute jarraipenerako beste mekanismo batzuk beharrezkoak direla.

Lesakako kasuan garrantzitsua deritzote udalarekin duten hartu eman etengabea. Batetik aipatu dute izaera publikoak zalantzarik gabe onurak dakartzala bai egoiliar zein langileentzat, eta udalaren inplikazioa altua dela. Bestetik aipatu da, egoitza ezagutzeko borondatea egon dela azken urteetako udal gobernuaren aldetik, eta hitzarmena hobetzeko zein langileak egonkortzeko prozesuan hartu emanak etengabeak izan direla.

Adineko pertsonen sexualitatea

Ez da beti ageri den gaia. Gainera, diotenez ez da asko lantzen eta tabu izaera du. Guztiak bat datoz garrantzitsua dela lantzea, eta ondo kokatzen jakitea zein diren beharrak, eta adineko pertsonekin horiek ere lantzea. Izan ere, tentsio ugari sortu daitezkeen eremua da, gaixotasun batzuen ondorioz desinibizioa izaten dutelako hainbat egoiliarrek, edo ondo interpretatzen ez diren behar edo jokaerak egon daitezke, baina ere abuso eta akoso egoerak bizi. Horregatik uste dute, ezinbestekoa dela gaia lantzea eta tresnak

ematea adineko pertsonen beharrak ase egon daitezen, eta haiek izan ditzaten tresnak erasoak identifikatzeko eta salatzeke.

Adierazi dute protokolo bat ere martxan dagoela, baina inoiz ez dela aplikatzen aipatu dute.

Herrian errotuta

Lesakako zein Berako egoitzek kokagune aproposa dute herrian errotuta egoteko.

Lesakan adibidez, udalaren ekimenez belaunaldi arteko parke bat eraikitzeke proposamena dago, eta hori langileen ustez oraindik gehiago errotzeko balio dezake. Sentitzen da adineko pertsonak bai udal politiken zein herriko elkarteek agendan sartzen direla, eta hori ezinbestekoa dela uste dute bizi kalitatea hobetzeko zein komunitatean errotuta egoteko.

Boluntario sarearen parte hartzea ezinbestekoa dela deritzote. Terapia okupazioanalaz arduratzen den pertsonak eta gizarte langileak laguntzen du horren antolaketan, eta Elkarriaren antolatuta daudenak joaten dira egoiliarrekin jolastera, paseatzera, kantatzera, urtebetetzeak ospatzera, argazkiak ateratzera edo bideoak egitera, besteak beste. Batzuetan taldekako ekimenak egiten dituzte, eta beste batzuetan arreta pertsonalagoa ere eskaintzen dute boluntarioek.

Lesakan behintzat jaso dugu herriko elkarteek antolatzen dituzten kale ekimenetan saiatzen direla egoitzak bisitatzen eta bertaratzen antolatzen dituzten jarduera kulturalak. Dena dela, ordutegiak kontuan hartzeko gonbidapena egiten dute; izan ere, ekitaldi asko antolatzen dira adineko pertsonentzat berandu diren ordutegietan, edo egoitzako ohiko funtzionamendua baldintzatzen duen momentutan.

Aldarrikapenak eta erronkak

Esan bezala, Berako egoitzan diagnostiko hau egiten ari ginela sinadura bilketa abiatu zuten langileek. Hitzarmenaren negoziaketan aplikatu ziren hainbat murrizketa salatu zituzten, eta patronatuari eskatu horietan atzera egiteko. Batetik, KPlaren igoera eskatu zuten, bigarrenik, jai egunetako plusa ez kentzea, hirugarrenik, bajaran egoteagatik kobratu beharreko osagarria ez murriztea eta, azkenik, urteko bost egun pertsonal hartzeko aukera berreskuratzea. KPlaren soluzio bidean zegoela adierazi zuten, baina beste hirurak

atzera botatzea izan zen haien eskaera, eta herritarrak deitu zituzten haiekin bat egitera sinadura bidez.

Horrez gain, aipagarria deritzogu batetik, espazioaren gaineko hausnarketa egiteko beharra, bi egoitzetan adierazi baitute espazioak muga asko sortzen dituela. Bestetik, Pertsonan zentratutako arreta eredua inplementatzeko beharra dago, eta hori garatzeko baldintzak ez dira errealak. Azkenik, euskararen gaia ere atara da, adineko pertsonen eskubidea dutelako arreta haien hizkuntzan jasotzeko, baina langile guztiek beti ez dituzte baldintzak ez badakite, euskara ikasteko. Herrian bertan eta haien ordutegiak kontuan hartuko dituen ikasteko moduak lehenetsi behar dira.

Etxeko langileak

2024ko abenduan jarraian Gizarte segurantzako etxeko lanen erregimen berezian pertsona kopuru hauek zeuden alta emanda:

Lesakan 13 emakume, Beran 21 emakume eta 5 gizonetik behera, eta Igantzi, Arantza eta Etxalarren 5 emakumetik behera bakoitzean.

Zaintzaile profesionalen baitan kolektibo zaurgarriena dugu honakoa. Batetik, gaur egungo lege eta arauak era perbertsoan jotzen dutelako sektore honen kontra (atzerritartasun legea eta Etxeko lanen errege dekretua dira horren adibide); bestetik, datuetan direlako ikusezinenak, ez baitaude ez ikerketa nahikoak ez baliabide nahikoak haien egoeraren berri izateko. Gehienak dira haien jatorrizko herrialdetik migratu duten emakume arrazializatuak, eta horrek, gainera, Euskal Herrian, indarkeria instituzional eta sozialaren begipuntuan kokatzen ditu. Hortaz, historikoki gutxietsia izan den eremu batetaz ari gara, eta gaur egun bazterketa sozialera kondenatzen diren emakume migratu eta arrazializatuek osatua.

Bortzirietan elkarriketatuta ditugun etxeko langileen kezketan sartu aurretik, aipagarriak iruditu zaizkigu lege eta arauen ondorioz sortzen diren egoera horiek diagnostikora ekartzea; izan ere, Bortzirietan etxeko langile gisa “gaizki” ez egon arren, abiapuntua bera diskriminatzailea da, eta ezinbestekoa da kontuan hartzea.

Atzerritartasun legearen tranpak

Eskubide ezaren aurrean, oraindik orain, emakume askok bizirauteko etxeko langile gisa jarduten dute. Horien barruan aipagarriak iruditzen zaizkigu herrialde txirotuetatik

migratu duten emakumeak. Askoren egoera irregularrak oraindik eta zaurgarriago bilakatzen ditu, haien jatorrizko herrialdeetan utzi duten familia sostengatzeko edota haien egoera erregularizatzeko, behartuta baitaude enplegua edozein baldintzetan mantentzera. Eskubide galera, diskriminazioa eta bortizkeria areagotzen dira horrelako kasuetan. Emakume horiengan eragin zuzen eta negatiboa du **4/2000 Atzeritartasun Lege Organikoak**; izan ere, migrazio fluxuengan, baliabide sozialetan eta parte hartze soziopolitikoan eragin zuzena du.

Espainiako estatuan atzeritarrek¹ bizitzeko era zuzenena lurraldean errotuta dagoela probatzea da. Errotze laborala da horietako bideetako bat. Bi urteko estantzia irregularra probatu behar dute eta horien artean 6 hilabetez lanean egon direla egiaztatu behar dute. Azken hori lortzeko erresoluzio judiziala edota Lan eta Gizarte Segurantzaren Inspektzioko arau-huste akta frogatu gisa aurkeztu behar ditu. Erresidentzia baimena lortzeko, bi urtez era irregularrean eta eskubiderik gabe bizitzen pasa behar ditu, frogatu behar du ez duela delitu penalik eta gutxienez 6 hilabeteko lanaldi irregularra izan behar du, horrek dakarren zaurgarritasuna barne. Hori horrela, Zinthia Alvarezek (2019) idatzitako artikuluan dioenez: “bi urtez era irregularren bizitzera behartu baina enplegurako aukera eta oinarritzko eskubideetara sarbidea ukatzen dituen estatu batek atzeritarrak bazterketa sozialera kondenatzen ditu”.

Errotze soziala da gehienetan erabiltzen den prozedura. Hiru urtez era irregularrean bizitzen egon behar dute atzeritarrek. Norbaitek urtebeteko lanaldi osoko aurre kontratua egin behar dio, edota herriko administrazioaren erresidentzia informea helarazi behar du. Errotze soziala da gehienek hautua, beraz, errotze laboralak edo familiarrak oso zailak baitira: hurrenez hurren langileak nola lanaldi irregularra frogatzeko salaketa jartzera behartuta daudelako, hala naziotasuna duten seme-alabak izan behar dituztelako (Nogueira eta Zalakain, 2015).

Laburbilduz, Espainiako Estatuak era perbertsoan erabiltzen ditu etxeko zerbitzuetan lanean jarduten duten atzeritarrak. Batetik, beharrezko jotzen ditu eta sarbidea baimentzen die, baina ez dizkie oinarritzko eskubideak bermatzen eta erabateko zaurgarritasun eta bazterketara kondenatzen ditu. Gainera, etxeko zerbitzuak oso gutxi

¹ legearen arabera espainiako naziotasuna ez duen oro.

araututako eremua izanik, egoera erregularra lortzeko zailtasunak biderkatu egiten ditu eta zerbitzu horiek kontratzen dituzten pertsona asko egoeraz baliatzea baimentzen ditu. Etxeko langile migranteekin guztiz oportunistak den jarrera mantentzen du. Finean, baieztatu dezakegu etxeko zerbitzuen araudiek eta atzerriartasun legeak, herrialde txirotuetako emakume migranteak azpiratzen dituen biko patriarkala eta koloniala osatzen dutela.

Horrez gain, aipagarria ikusten dugu familia berriz biltzeko prozedurak aipatzea; izan ere, Bortzirietako emakume migratu askoren egoera da jatorrizko herrialdean seme-alabak utzi izana, eta Euskal Herrian geratzeko erabakia dagoenean haien senideak ekarri nahi izatea. Ez prozedura erraza, eta baldintza oso zehatzak bete behar dira (18 urtetik beherako seme-alabak soilik ekar daitezke eta haiek mantentzeko nahikoa baliabide ekonomiko daudela demostratu behar da, besteak beste), eta askotan zailtasun burokratiko zein oztopo administratibo askorekin egiten da topo.

Etxeko lanen dekretua

Etxeko lanak arautzeko Espainiako estatuan indarrean dauden dekretuak izango lirateke aztertzen bigarrenak; izan ere, zuzen-zuzenean eragiten diote Bortzirietako zaintza lanen kontzepzio, aitortza eta profesionalizatzeko aukera zein baldintzei. Nagusiki 16/2022 Errege Lege Dekretua, irailaren 6koa, dugu etxeko langileen lan-baldintzak eta Gizarte Segurantzakoak hobetzeko adostua. Horrez gain, **893/2024 Errege Dekretua, irailaren 10ekoa**, dago familia-etxeko zerbitzuaren eremuan segurtasunaren eta osasunaren babesa arautzen duena. Aurretik zeuden lege eta araudien garapena dira, nahiz eta Etxeko Langileen elkarte askok behin eta berriz salatu duten oinarrian aldatu baino gauza zehatz batzuk soilik aldatu dituela. Azken erreformak bi aldaketa eta aldarrikapen nagusi jasotzen ditu, bata langabezirako eskubidea, eta bestea, kaleratze justifikatu gabekoen aurrean neurriak ezartzen ditu.

Hitzarmenak etxeko zerbitzua etxe barruan garatzen den lan gisa definitzen du. Hala ere, Errege Dekretuak lan horren izaera berezia azpimarratzen du eta eremu produktibotik ateratzeko justifikazio ideologikoak erabiltzen ditu. 1985eko arauditik egotzi zitzaion izaera berezia eta beste enpleguekiko baldintza berezietan ezarri da. Dekretuak hitzaurrean horrela jasotzen du berezitasuna: “Aski ezagunak dira etxeko zerbitzuetan

lanean diharduten pertsonen baldintza partikularrak zeinak araudi espezifiko eta berezituak justifikatzen dituzten. Batetik eta, nagusiki, aktibitatea garatzen den eremua dago, familiako etxea, norbanako zein familliako intimitatera lotua, eta, ondorioz, merkatu ekonomiara lotzen diren gainontzeko harreman laboralen oso ezberdina. Bigarrenik eta, aurrekoarekin lotua, enplegatzaile eta enpleguaren arteko konfiantzazko lotura, beste lan harremanetan garatu behar ez dena”.

Izaera berezia eta, ondorioz, diskriminatzailea egozten zaio etxeko lanari. Horregatik, etxeko langileen elkarte, talde feminista eta sindikatuen aldarrikapena izan da gizarte segurantzaren erregimen orokorrean txertatzea etxeko lanak eta gainontzeko langileen eskubideekin parekatzea. RD1620/2011k jaso zuen Gizarte Segurantzaren sistema eraberritzeko 27/2011ko legeak erregimen berezia orokorrean txertatu behar zela. 2019ko urtarrilaren 1ean aldatu behar zen arren, atzeratu da.

Araudiak jasotzen dituen hainbat gako:

- Lan kontratu idatzia eskatu daiteke beti (aurretik kasu batzuetan ahozko kontratua baimentzen zen). Horietan lan denbora guztia zein izango de zehaztu behar da (hau da askotan zintzotasunez jasotzen ez dena, bereziki interna gisa daudenen kasuan).
- SEPEk edo baliokideek aitortzen dituzten kolokazio agentziak dira soilik legezkoak. Gainera, ez da bidezkoa hilabeteko soldatatik agentziak zati bat eramatea.
- Asteko gehieneko lanaldia 40 lanordukoa da, externa zein internentzat, nahiz eta legeak "presentzia-denbora" baimentzen du, gehienez astean 20 ordukoa hilabeteko aldian. "Presentzia-orduetan" zerbitzuak emateko baino ez da erabili behar, ez dira orduak benetako lana egiteko. Presentzia-orduak gutxienez gainontzeko lan orden pare ordaindu behar dira. 2024ean presentzia-orduaren gutxienerako prezioa 8,87 €da.
- Gutxienez 12 ordu atseden egon behar dira; internen kasuan 10 bakarrik izan daitezke, baina gainerako 2 orduak atsedenaldi gisa konpentsatu behar dira, gehienez lau asteko epean.
- Etxeko langileak astean 36 orduko atsedenaldi jarraitua izateko eskubidea du. Ahal dela, hartu beharko dira. larunbatetik aurrera edo astelehen goizera arte eta

igande osoa. 36 orduko asteko atsedenaldi jarraitua langilearen eskubidea da, eta enplegatzaileak errespetatu egin behar du.

- Urteko oporrak 30 egunekoak dira; horietatik, gutxienez 15 egun jarraituak izan behar dute. Oporretarako eskubidea guztientzat da, egoera irregularrean egoneto ez.

(Etxeko langileen eskubide eta enplegatzaileen betebeharretan gehiago sakontzeko ikus: ATH-ELE elkartearen web gunea)

Askotariko perfilak Bortzirietan

Askotariko profilek osatzen dute lan sektorea. Normalean interna bezala daudenak emakume migratu eta arrazializatuak dira, askotan egoera administratiboa erregulatugabe. Externa gisa dauden artean, migranteak nagusi badira ere, badaude bertan jaiotako batzuk ere.

Era berean, askotariko lanak egitera behartuta daude, hasieran pertsona baten zaintza lehentasuna bada ere, etxeko lan guztietara zabaltzen da jarduna.

Isolamendua eta bakardadea

Sare sozial gutxi dute, eta harreman sare eskasa. Askotan dituzten ordu libreetan, noraezean ibiltzen direla aipatzen dute, edo etxean egoten dira, ez baitute inor joateko aukerarik. Hala ere, hau ez da langile guztien kasua, Bortzirietan urte batzuk eman dituztenak aipatzen baitute sarea egin dutela, eta hasierako bakardade hori ez dutela sentitzen.

Harrera leku sentitzen dute eskualdea, ongi jasoak izan direla, irekitasunez.

Zaintzaren kate globala

Aurretik aipatu dugu zaintzari begiratzeko, ezinbestean ikuspegi transnazonaletik begiratu behar zaiola. Etxeko langile gisa dauden emakume askoren errealitatea migrazio prozesuak baldintzatuak dira, horrek dakarren guztiarekin. Gainera, askotan jatorrizko herrialdean familia eta seme-alabak uztera behartuta daude, eta egoera hori oso mingarria dela adierazi dute, egunerokoan asko eragiten dien zerbait.

Berebizikoa dute haiekiko etengabeko komunikazioa, mobilaren bidez bermatzen dutena. Hori da bere senideekin lotura mantentzeko duten aukera bakarra.

Senideak Euskal Herrira ekartzen saiatu direnak ere badaude. Prozesu luzeak, bakartiak eta oztopoz beterikoak direla salatu dute.

Euskara

Hizkuntzaren ez da erronka makala. Batetik, oso kontziente dira euskarak Bortzirietan duen garrantziaz eta haien lana egiteko beharraz. Baina bestetik hori ikasteko zailtasunez ohartarazten dute. Ikusten dute eta kontziente dira Bortzirietan bizitzeko eta adineko pertsonak artatzeko ezinbestekoa dela, baina haien egunerokoak eta eskaintzen diren baliabide urriekin, ezin dute hizkuntza berri bat ikasi.

Euskara ikastea haien nahia da, baina ez dute uste soilik haiek egin behar dutenik ikasteko esfortzua. Ongi aztertu behar da zein diren haien egoerara egokitzen diren baliabideak, eta administrazio publikotik zein komunitatetik eskaini.

Landa eremuko oinarrizko beharrak

Batetik, mugikortauna aipatu dute. Eskualdetik mugitzeko zailtasuna handia da, kotxerik gabe ezin da herri txikietatik atera, garraio publikorik ez dagoelako. Beti besteen pendiente edo mugitu gabe egon behar dute, edo diru pixka bat biltzen badute taxian mugitu. Ez dute ohitura handirik ikusten kotxeak partekatzeko eta elkarrekin mugitzeko.

Bestetik, etxebizitza aipatu dute. Ez da erraza etxea topatzea eskualdean, eta horrek baldintzatzen ditu bai externa gisa lan egiten dutenak, baita interna gisa daudenak ere, atsedean egunetan ezin baitute bertan gelditu ez bada lan egiten duten etxean, edo lagunen batek eskaintzen dion tokian.

Azkenik, bizitzaren garestitzea eta zerbitzu eza ere aipatu dituzte.

Erronkak

Zaintzaileen arteko topaguneak, lan esperientziak kontatzeko, eta sozializatzeko.

Garraioaren gaineko hausnarketa

Gizarte zerbitzuekin koordinazioa: adineko pertsonen eta etxeetako informazio asko dute, eta lan prebentiboa zein eskuhartzerako ezinbesteko pieza dira zaintzaren antolaketan.

9.4 Adineko pertsonak

Elkarriketa hau egiteko, Igantziko Jubilotekan parte hartzen duten 8 emakumerekin elkartu gara, guztiak 80 urte bueltakoak. Baten alaba ere egon da elkarriketa guztian zehar. Oraindik gehienek ez dute uste zaintzak behar dituztenik eta iruditzen zaie nahiko ondo atendituak daudela. Haietako asko bikotearekin bizi dira oraindik edo seme-alabak gertu dituzte. Gertu ez egotekotan, haien dei bat behintzat asko eskertzen dutela aipatu da, oraindik kontutan hartzen dutela jakiteko.

Etxean eta senideekin

Orain arte ikusi dugun bezala, eredu familista eta feminizatua da gure jendartean eta Bortzirietan gailentzen den zaintza eredua. Elkarriketa honetan ere argi geratu da familiak, eta bereziki alabek, hartzen dutela beraien senideak zaintzeko ardura nagusia. Kasu butzutan ondoko etxean bizi dira edo ama hartu dute beraien etxean bizitzeko. Aurrera begirako desioengatik galdetuta, ia denek etxean edo baserrian zahartzeko nahia adierazi dute, ahalik eta independenteena, eta senideen konpainiarekin. Laguntza beharko balute, batzuk profesionala hemengoa eta euskalduna izatea nahi dutela adierazi dute, jakinda gero eta zaintzaile profesional gehiago migratutako emakumeak direla, ia %100 egoilarrez ari bagara. Arantzan egoilar bakarra dagoela aipatu dute.

Zerbitzuen erabilera

Jubilotekari dagokionez, oso ondo baloratzen dute zerbitzua eta astean egun gehiagotan eskaintzeko eskaria egin dute (astean behin dago Arantzan). Aipatu da pertsona gehiagok parte hartu zezakeela bertan eta eztabaida egon da arrazoiaren inguruan: ez dutelako ezagutzen, ez dutelako nahi edo ezin dutelako.

Eguneko zentroagatik galdetuta, bertara joateak eragiten duen lotsa atera da. Lotsagatik ez doaz orain, baina beharra izanez gero, zerbitzu honen gertutasunaren beharra azpimarratu dute (egun Beran eta Lesakan dago). Izan ere, transportearen aferak erabilpena guztiz baldintzatzen duela esan dute.

EELZ batek soilik erabiltzen du eta ondo baloratu du ere. Hala ere, aipatu da pertsona batzuk agian zerbitzu hau beharko luketela ez hainbeste etxeko beharrei edo zaintza fisikoari lotuta, baizik eta konpainia edukitzeko eta norbaitekin hitz egiteko astean behin edo bitan.

Bakardadearen areagotzea eta ekimen komunitarioen beherakada

Bakardade sentrazioa oso ohikoa da adineko pertsonengan, are gehiago familia gertu ez duten kasuetan. Herri txikia izatea eta Bortzirietako dispertsioak ere bakardade sentimendua areagotzeko ezaugarriak dira. Beraien hitzetan, hirietan ere bakardadea sentituko dute, baina bertan behintzat baliabide gehiago eta ikastaroen eskaintza zabalagoa dagoela aipatu dute. Zerbitzuen zentralizazioa salatu dute eta landa eremuko herritarrek eskubide berdinak dituztela aldarrikatu.

Herrian adineko pertsonen bakardadeari aurre egiteko komunitatetik antolatzen ziren egitasmoak urritzen joan direla aipatu dute, izan herritarren inizatibaz anolatutakoak edo apaizak martxan jarritako ekimenak. Egun, bolondresen parte hartzea zaharretxetan bisitak egitera mugatzen dira. “Arkupeak” jubilatuen elkarteak ere ekimen ezberdinak antolatzen ditu egun, baina dena Beran eta Lesakan zentralizatzen dela aipatu dute.

Eskaerak eta proposamenak

- Jubiloteka egun gehiagoz.
- EELZ osatzea.
- Garraio bideak jartzea zerbitzu ezberdinetara joan ahal izateko.

10. ETORKIZUNERAKO ERRONKAK

Orain arteko analisi kualitatibo zein kuantitatibotik, Bortzirietako zaintza antolaketan honako erronkak identifikatu ditugu. Hemendik aurrera, horietan sakondu eta ekintzara salto egiteko urratsak landu beharko dira.

10.1 Zaintzak erdigunean kokatzeko egiturak sortu

Zaintza lanak aitortu behar dira, horien lanen izaera, dimentsioak eta tokian toki betetzen dituzten funtzioak ikustaraztearekin batera. Gizartean, orohar, eta, zehazki, ekonomian egiten duten ekarpena kontuan hartu behar da eta bizitza sozialeko eremu guztietan betetzen duen funtzioa onartu. Horregatik, udal zein eskualdeko egitura eta parte hartze organoetan presente egon behar dute zaintzek. Eta, horiek horrela, historikoki mintzaide politiko izan ez diren horiek, hain zuzen ere, zaintzaileek, emakumeek, migranteek, ahots propioz izan behar dute ordezkaritza.

- Zaintza mahaia sortu
- Mankomunitateen arteko elkarlana eta koordinazioa aztertu
- Nafarroako Zaintza Ituna sinatu
- Aurrekontuak zehaztu
-

10.2 Arreta eredua eta zerbitzuak hobetu

Ikuspegi asistentzialista nagusitzen da zerbitzu sozialetan, eta askotan mendekotasuna eta zaintza beharrak salbuespena izango balira bezala tratatzen dira. Zerbitzuen kudeaketa lehenesten da, eta askotan ez dago baliabide ekonomiko edota humano nahikorik komunitatea harilkatzen jarraitzeko eta ikuspegi erlazionalagoa bermatzeko, ezta pertsonalizazioa eta pertsonen behar eta desioak erdigunean jartzeko. Horregatik, arreta eredua aldatu behar da, ez dezan izan adinkeriarik, ez diezan kendu pertsonen agentzia zein erabakitze eskubiderik. Horren aurrean, bizi ibilbideak, harremanak eta

tokiko errealtatearekin loturak mantentzeko bideratutako arreta eta zerbitzu ereduak lehenetsi nahi ditugu.

- Zerbitzuek ez dituzte pertsonaren berezitasunak erdigunean. Pertsonetan zentratutako arreta eredurako trantsizioa egin behar da.
- Zerbitzuen gaineko ezagutza hedatzea
- Mendekotasun tramitazioak arintzeko baliabideak sortzea
- Menpekotasunaren gorakada kontuan hartuta, zerbitzuak orotariko perfiletara egokitzeko dibertsifikatzea.
- Zaintzaren ikuspegi prebentiboa gehiago lantzea.
- Zerbitzuak era intentsiboagoan eta herri guztietara hedatzea
- Jubiloteka egun gehiagoz eskaintzea
- EELZ hedatzea
- Garraio bideak bermatzea zerbitzuetara joan ahal izateko.
- Erresidentzien kudeaketa ereduaz aztertu
- Haurren zaintzarako zerbitzuak eskualde guztian hedatzea: haur eskolak, haur zaintza zerbitzuak, ludotekak eta udalekuak.
- Osasungintza profesional gehiago egotea
- Erditze osteko arreta, fisiko zein psikologikoa
- Eskoletan zein hezkuntza komunitatean zaintzaren pedagogia zabaltzea, espazioen antolaketa, zerbitzuetan eta curriculumean.

10.3 Zaintzaileen bizi eta lan baldintzak hobetu

Argi dago zaintza lanak aitortu eta dagokien balio sozial zein politikoa emateko, lan horietan, lehen lerroan dauden pertsonen ekarpena kontuan hartu behar dela. Ezinbestean, gaur egungo zaintza lanen antolaketa bidegabea salatu behar da, eta era berean, zaintzaileen bizi eta lan baldintzak hobetu eta duindu behar dira. Batak bestea dakar. Ezin dugu jarraitu gutxi batzuen zaintza eskubidea bermatzen, zaintzaileen eskubide sozial eta politikoen bizkar; hots, kalitatezko zaintza eman eta jasotzeko baldintza duinetan egon behar dute langileek.

Bereziki arreta jarri behar da kolektibo zaugarrienetan, etxeetan zaintza zerbitzuak ematen ari diren horiengan, migrazio prozesuak zeharkatuta iristen baitira askotan lan

horietara. Begirada antiarrazista, zein transnazionala garatzea ezinbestekoa da, dagokigun eremu honetan.

- Zaintza lanen aitortza sozial eta politikoa.
- Zaintzaileen arteko topaguneak, lan esperientziak kontatzeko, eta sozializatzeko.
- Garraioaren gaineko hausnarketa
- Etxeko langileen egoeraren gaineko sentsibilizazioa
- Sare komunitarioak: elkarten arteko koordinazioa (Elkarrizan hedatu)
- Gurasoen arteko espazioak, esperientziak partekatu eta elkarrekin ikasteko
- Erantzunkidetasuna eta elkarrekikotasuna: gizonen absentziari aurre egiteko estrategiak landu.

10.4 Saretze komunitarioa

Zaintza lanak era desorekatuan banatzen dira eta klasearen, generoaren eta arrazaren arabera segregazioa ematen da. Emakumeak dira zaintzaile nagusiaren papera betetzen dutenak familia gehienetan eta ez erakunde publikoek, ez gizonak, ez dute dagokien ardura hartzen. Molde familista duten politika publikoak garatzen dira, oro har, eta nagusitzen diren zerbitzuak legez definituta dagoen menpekotasunari bideratzen dira, familiaren bidez bermatuak. Administrazio publikoari dagokion berme unibertsalerako ardura kendu gabe, eta gertuko sareek izaten duten erantzunkizuna alde batera utzi gabe, zaintza lanak komunitatean birbanatzeaz ere aritu nahi dugu. Jendarte osora zabaltzeko behar dugu zaintza lanekiko ardura eta bereziki orain arte egoera pribilegiatuan kokatu diren horiek interpelatu behar dira.

Gainera, uste dugu eredu publiko komunitario baterako trantsizioan kokatu behar dugula, komunitateak izan daitezkeen familia eta erakundeen arteko hutsunea betetzen laguntzen dutenak, eta zaintza eredu berrietara joateko motore. Halaber, uste dugu komunitatean egotea, harremanetan, sareetan eta sistema komunitarioetan parte hartzea, pertsonen bizi-kalitaterako eta ongizaterako ezinbesteko beharrezkoa dela; beharrezko ditugula sortzea elkar babestu eta garatu gaitezkeen ingurune konkrituak; harrera-gunea, konfiantza, zaintza eta babesa eskaintzen diguten biziguneak; eta intzidentzia politikorako ezinbesteko direnak.

- Bakardadeen gaineko hausnarketa kolektiboa eta aurre egiteko neurriak sortzea
- Herri txikietako isolamenduari aurre egiteko bideak aztertu
- Herri txikietan komunitateek duten potentzialitatea hauspotu
- Orotariko zaintza beharrak asetzeko akonpainamendu eta laguntza sareak sortu
 - o Gurasoen artekoak
 - o Zaintzaileen artekoak
 - o Zaintzaile afektiboak
 - o Belaunaldi artekoak
 - o ...
- Auzolanaren kultura hedatu
- Euskara ikasteko baliabide publiko eta komunitarioak sortu
- Jantokien gaineko hausnarketa egin
-

11. ERANSKINAK

11.1 Eranskina 1: Marko normatiboa

Zaintza lanak demokratizazio bidean jartzeko, izan, badira hainbat lege eta araudi eragiten dutenak. Horietako batzuk aipatuko ditugu, ikusteko legeen babes eta mugak nolakoak diren.

EMAKUMEAREN AURKAKO DISKRIMINAZIO MODU GUZTIAK EZABATZEKO KONBENTZIOA (CEDAW), (1979)

Horren arabera, herrialde baten garapen osoa, munduaren ongizatea eta bakea lortzeko, ezinbestekoa da emakumeek eremu guztietan ahalik eta gehien parte hartzea, gizonen baldintza berberetan. Eta onartzen du gizonen eta emakumeen arteko erabateko berdintasuna lortzeko, beharrezkoa dela bien rol tradizionalak eraldatzea, hala jendartean, nola familian. Hala nola, jasota dago nola beharrezkoa den gurasoek familiarekiko betebeharrak, laneko erantzukizunak eta bizitza publikoko parte-hartzea uztartzeko behar dituzten gizarte-zerbitzuak eman daitezen bultzatzea, bereziki haurrak zaintzeko zerbitzu-sare baten sorrera eta garapena sustatuz.

BEIJINGO EMAKUMEARI BURUZKO MUNDUKO LAUGARREN KONFERENTZIA (1995)

15 art. “Eskubide-, aukera- eta baliabide berdintasuna, emakumeen eta gizonen artean familiari dagozkion erantzukizunen banaketa bidezkoa eta gizon-emakumeen arteko elkartze harmoniatsua ezinbestekoak dira pertsonen zein familien ongizaterako, baita demokrazia sendotzeko ere”. Helburu hori lortzeko, honako hau proposatzen du: «Emakumeen eta gizonen erantzukizunen harmonizazioa sustatzea, lanari eta familiari dagokienez». Horretarako, konprometitutako gobernuei zera eskatzen die (179 art.): “Lege, pizgarri edo sustagarrien bidez, emakume eta gizonen amatasun- edo aitatasun lizentziak eta -prestazioak lortzeko aukera egokiak ematen zaizkiela bermatzea; gizonen eta emakumeen familiarekiko dituzten erantzukizunak berdintasunean bana daitezela sustatzea, baita lege, pizgarri edo sustagarri egokiaren bidez ere; eta, gainera, ama langileei edoskitzea erraztea”.

179.D art. «Besteak beste, irakaskuntzaren esparruan, generoaren oinarriaren gainean lan-banaketa indartzen duten gaitasunak aldatzeko politikak lantzea, etxeko lanei dagokienez partekatutako erantzukizunen kontzeptua sustatzeko, bereziki haurren eta adinekoen arreta». «Erantzukizun partekatuen» ideia beste hitzarmen, lege eta

araudi batzuetan jasoko da gerora, <<erantzunkidetasun>> gisa. Mugimendu feministak <<erantzunkidetasuna>> eskatuko du bizikidetzaren eremu guztietan, bereziki etxeko lanei eta zaintzari dagokienean.

156.HITZARMENA, LNE (LANAREN NAZIOARTEKO ERAKUNDEA), ESPAINIKO ESTATUAK BERRETSIA, 1985EAN.

Familia-erantzukizunak dituzten langileen arazoak familiari eta jendarteari buruzko gai zabalagoei dagozkien alderdiak direla onartzen

du. Kontziliaziorako zailtasunak lan-arloko legediaren esparrua gaingitzen duela dio. Kezka berezia agertzen du langile jakin batzuei dagokienez, hain zuzen ere, familia-erantzukizunak direla medio ordaindutako jarduera ekonomikoan trebatzeko, sartzeko eta parte hartzeko zailtasunak dituzten langileei dagokienez. 5.b artikulua zerbitzu komunitario publiko zein pribatuak garatzeko eta sustatzeko eskatzen die estatu kideei (hala nola haurrengan eta familian zentratutako laguntza-zerbitzuak eta -bitartekoak).

LANAREN 189. HITZARMENA, ETXKO LANGILEENTZAKO LAN DUINARI BURUZKOA, 2011. ESPAINIA 2023an BERRESTE PROZESUAN DAGOENA:

Etxeko langileen gutxiengo eskubideak jasotzen ditu hitzarmenak. Honako hau adierazita dago bertan: “Kontuan hartu da etxeko lanak gutxietsia eta ikusezina izaten jarraitzen duela, batez ere **emakumeek eta neskatuek egiten dutela (horietako asko migratzaileak edo komunitate behartsuetako kideak), eta, enplegu- zein lan-baldintzei** dagokienez, bereziki kalteberak direla diskriminazioarekiko nahiz giza eskubideen beste abusu batzuekiko”.

Hitzarmenak enplegu hori duintzeko neurriak proposatzen ditu, baina okupazio nagusia eta lanaldi osokoa denean soilik. Ez du zaintza informala edo noizbehinkakoa babesten. Proposatutako neurrien artean daude honako hauek: kontratuaren beharra eta ezaugarriak; legedi nazionalaren babesa; eguneko atsedenaldiak; beste enplegu batzuei dagozkien eskubide eta betebeharrekin parekatzea; eta elkartzeko eskubidea.

Mugimendu feministak bere aldarrikapen nagusien artean jarraitzen du izaten, Etxeko langileak lan-erregimen orokorrean sartzea eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. hitzarmena bere osotasunean berrestea.

39/2006 LEGEA, ABENDUAREN 14KOA, AUTONOMIA PERTSONALA SUSTATZEARI ETA MENDEZAKO-EGOERAN DAUDEN PERTSONAK ZAINTEARI BURUZKOA.

Ibilbide oso luzeko legea ez izan arren, eta are gutxiago horren garapena, eragin handiko legea izan da, zerbitzu sozialen eta prestazioen izaera nabarmen aldatu duelako. Batetik,

Espainiako estatuan Mendekotasun legeak oinarritzko babesa eman dio menpekotasun egoeran daudenei eta haien senitartekoei. Bestetik, Zerbitzu sozial eta prestazio ekonomiko berriak eskaini ditu, nahiz eta azken horietan garapen handiagoa izan duen. Legearen garapenak Dependentsia eta Autonomiaren sistema nazionalan izan du isla.

Legeak dio: “erronka, azken batean, ondorengoa baino ez da: egoera berezi batean egoteagatik kalteberak diren pertsonei, dituzten premietan laguntza eskaintzea, hau da, eguneroko bizitzako oinarritzko ekintzak aurrera eramateko laguntza eskaintzea, autonomia pertsonal handiagoa eskuratu eta herritar gisa dituzten eskubideez oso-osorik baliatu ahal izateko”. Lehen artikuluan zehazten du: “Lege honen helburua da mendetasun-egoeran dauden pertsonei laguntzea eta beren autonomia pertsonala garatzeko duten eskubide subjektiboa berdintasunez erabiliko dela bermatzeko oinarritzko baldintzak arautzea, betiere legeetan ezarritako baldintzetan. Horretarako, Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistema sortuko da, eta administrazio publiko guztien lankidetzeta eta parte hartzea izango ditu. Horrekin batera, Estatuko Administrazio Orokorra espainiar Estatuko edozein lurraldetan bizi diren herritarrentzako gutxieneko eskubideak izango direnak bermatuko ditu. Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistema Estatuko Administrazio Orokorren eta autonomia-erkidegoen arteko koordinazio eta lankidetzaren ondorioa izango da, eta mendetasun-egoeran diren pertsonei eragiten dieten arlo guztietarako neurriak zehaztuko ditu. Beharrezkoa den kasuetan, tokiko erakundeek ere esku hartuko dute”.

Deigarria da nola aintzat hartzen dituen zaintza ez-profesionalak: «Mendetasunen bat dutenei beren bizilekuan bertan familiakoek edo ingurukoek ematen dieten arreta, hau da, arreta-zerbitzu profesionalizatu bati lotuta ez daudenei emandakoa». Era berean, 3.i artikulua gomendatzen du «mendetasunen bat duten pertsonak beren bizimodua duten ingurunean egon daitezela, ahal den guztietan behintzat». Lege horrek egiaztatu eta onartu egiten du batez ere emakumeek beren senideei etxeko eremuan edo eremu pribatuan emandako zaintza informala, baina ez du zaintza hori zenbaterainokoa den adierazten eta ordezkatzeko behar adina neurri ezartzen.

17/2019 FORU LEGEA, APIRILAREN 4KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI BURUZKOA

Lege hau da Nafarroak berdintasun politiketan duen eskumena gauzatzeko tresna juridiko nagusia. Legearen 2. Atalean, lan erreproduktiboari buruzkoan, teoria kritiko feministen markotik, zaintzak erdigunean jartzeko premia mahaigaineratzen da. Hain zuzen ere, zaintzak aitortzea, duintzea eta arautzea proposatzen du legeak; eta botere eta administrazio publikoei arduraz jokatzeko eskatzen die. Honakoak dira garatzea galdegiten dituen neurri zehatzak:

- **Art. 46** Ezagutza, agerian jartzea eta sentsibilizazioa. Zaintzako langileen inguruko estereotipoak alde batera utzi eta administrazio publikoen eta enpresen inplikazioa sustatuko da, lan erreproduktiboaren beharrak denen ardura direla onartzeko. Era berean, honakoa adierazten da: Nafarroako Gobernuak, hezkuntza arloko eskumena duen departamentuaren bidez, zaintzek bizitzaren jasagarritasunerako duten balioa nabarmenduko du irakasleekin, ikasleekin eta familiekin egiten dituen jarduketetan.
- **Art. 47** Zaintzailearen rola. Hala dio legea: “1) Nafarroako Gobernuak ekintzak sustatuko ditu, zaintzaile ez-profesionalek zaintza-lanak betetzean dituzten baldintzak hobeak eta duinagoak izan daitezen. Era berean, sustatuko du lan baldintza duinak lortzea zaintza profesionalen sektorean”.
Lehen aldiz hartu dira kontuan zaintzailearen premiak, ez bakarrik mendeko edo zaindutako pertsonarenak. Hau da, uste da beharrezkoa dela “zaintzaileak zaintzea”; izan ere, bestela, zainketaren defizita kateatu egiten da, ondorioak eragiten ditu eta emakume batzuegandik besteengana igarotzen da, beti egoera ahulenean daudenengan amaitu arte. Ildo horretan, nekea saihesteko eta zainketa konplexuak edo osasunarekin lotutakoak egiteko prestakuntza espezifiko errazteko neurriak hartzea komeni da, baita diru-sarrerak, kotizazioak eta lan-merkatuan berriz sartzeko aukerak bermatzeko neurriak hartzea ere.

Zainketa profesionalen sektoreko lan-baldintza duinei dagokienez, aitortutako gabeziak dira honako hauek: langile soziosanitarioen prestakuntza espezifikorik eza, lan-txanda luzeak, zerbitzuaren gehiegizko karga (zaintzaile bakoitzeko erabiltzaile gehiegi izateagatik), antolaketa- eta diziiplina-metodo ez oso lagunkoiak, eta terapia okupazionalik eta laguntza psikologikorik eza. Halaber, beharrezkoa da lanpostuak oposizio-deialdi bidez finkatzea, behin-behinekotasuna murriztea, soldata-osagarriak errespetatzea eta lanpostuaren erantzukizunekin bat datorren ordainsaria jasotzea.
- **Art. 47.2:** “Nafarroako Gobernuak berariazko jarduketak sustatuko ditu askotariko diskriminazioa pairatzen duten zaintzaileen rola kontuan hartuta, batez ere emakumezko migratzaileen eta desgaitasuna dutenen kasuan; etxeke lanen sektorean lan harremanak agerian gelditzea eta langileen lan baldintzak hobetzea sustatuko du, bitartekaritza eginez enplegu emaileen eta etxeke langileen artean.
- **Art. 47.3:** «Nafarroako Gobernua, eskubide sozialen eta osasunaren arloan eskumenak dituzten departamentuen bidez, genero ikuspegia kontuan hartuko du arreta soziosanitarioa diseinatzean, emakumeak beti zaintza-lanekin lotzen dituzten rola eta estereotipoak ez sendotzeko».

68/2021 FORU DEKRETUA, UZTAILAREN 28KOA, NAFARROAKO BERDINTASUNERAKO INSTITUTUA ERAKUNDE AUTONOMOAREN ESTATUTUAK ONESTEN DITUEN URRIAREN 30EKO 260/2019 FORU DEKRETUA ALDATZEN DUENA.

Foru dekretu honen helburua da urriaren 30eko 260/2019 Foru Dekretuaren bidez onetsi ziren Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren estatutuak aldatzea.

Zaintzei dagokienez, NABI/INAren funtzio berri hauek jasotzen ditu:

- **Art. 18.** Ikerketarako, Berrikuntzarako eta Ezagutza Kudeatzeko Atalak honako eginkizun hauek izanen ditu, besteak beste: Lan erreproduktiboan eta zaintza lanetan emandako denborari dagokionez, gizonen eta emakumeen artean dauden desberdinkeria eta diferentziak aztertzea.

NAFARROAKO ZAINTEKETEN ALDEKO FORU ITUNA (2022-2026)

Programa bat da Nafarroako Berdintasunerako Institutuak sustatua emakumeen eta gizonen arteko berdintasun politika publikoen esparruan, Nafarroako Foru Komunitateak eta bertako toki erakundeek zaintzen alde duten konpromisoa gauzatzeko. Izan ere, Itunaren arabera zaintza funtsezko alderdia baita bizitzaren jasangarritasunerako edota berdintasun egiazkoa eta eraginkorra lortzeko. NABII 2005etik garatu duen *Kontziliaziorako Tokiko Itunen Programa* du aurrekari moduan. Honakoak dira helburuak:

1. Zainketa sustatzea administrazioetan eta administrazioetatik, emakumeen eta gizonen arteko egiazko berdintasunaren eraikuntzan politika publikoen ardatz nagusi gisa.
2. Zainketek bizitzaren jasangarritasunerako duten balioa onartzea.
3. Emakumeen pobrezia murriztea Nafarroan.
4. Nafarroako enpresa eta erakundeetan berdintasunaren aldeko konpromisoa sustatzea.